



# ARABAKO KULTURA PLANA

2023-2028

araba  álava  
foru aldundia diputación foral

**2023-2028 Arabako Kultura Plana** Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailaren ekimena da, eta pertsona, elkarte, talde artistiko, enpresa eta erakunde ugariak parte hartu du prozesuaren fase guztietan.

Arabako 2023-2028 Kultura Planaren laguntza metodologikoa, saioen garapena eta idazketa: David Roselló Cerezuela, Nexe Cultural SLko zuzendaria

Araba, 2023ko martxoa


Depósito Legal: LG G 765-2023  
ISBN: 978-84-126985-9-6

# Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala

## **27. artikulua**

1. Pertsona orok du eskubidea erkidegoaren kultura bizitzan askatasunez parte hartzeko, arteez goatzeko eta aurrerapen zientifikoan eta hortik eratorritako onuretan esku hartzeko.
2. Pertsona orok du bere ekoizpen zientifiko, literario edo artistikoengatik dagozkion interes moral eta materialak babesteko eskubidea.

AURKEZPENA .....	7
SARRERA.....	9
METODOLOGIA .....	11
DIAGNOSTIKOA: ARABAKO KULTURAREN IKUSPEGIA .....	13
1. Arabako lurralde historikoa, erradiografia laburra .....	14
2. AFA eta kulturaren duen inplikazioa.....	16
3. AKPE 2017-2020, baloratu beharreko aurrekaria .....	18
4. Arabako errealitate kulturalaren ikuspegia .....	19
5. Diagnostikoa, laburbilduz.....	27
ESTRATEGIA PROPOSITIBOA: ARABAK KONPROMISOA DU ESKUBIDE KULTURALEKIN .....	29
1. AFA-ren kultura politika berria gidatzen duten balioak .....	30
2. Misioa eta ikuspegia.....	32
3. Kulturaren erronkak Araban.....	33



ESKUBIDE KULTURALAK, KULTURA POLITIKAREN ERAGILE GISA.....	35
<b>1. ildo estrategikoa. KULTURA ESKURA IZATEKO ESKUBIDEA.....</b>	<b>37</b>
1.1. Kulturarako irispiderako politikak.....	37
1.2. Kultura ekintzaz sentsibilizatzea.....	38
1.3. Genero berdintasuna .....	39
1.4. Kultura eta aniztasun sozial eta funtzionala .....	40
1.5. Kultura eta gazteria.....	41
<b>2. ildo estrategikoa. KULTURARAKO ESKUBIDEA LURRALDETIK ...</b>	<b>43</b>
<b>3. ildo estrategikoa. SORTZEKO ESKUBIDEA.....</b>	<b>47</b>
<b>4. ildo estrategikoa. MEMORIARAKO ESKUBIDEA.....</b>	<b>49</b>
4.1. Ondarea zabaltzea eta balioestea.....	49
4.2. Ondarea kontserbatzea eta zaharberritzea.....	50
4.3. Ondarearen ikerketa, dokumentazioa eta katalogazioa .....	51
4.4. Plangintza eta kontrola .....	51
4.5. Finantzaketa .....	51
<b>5. ildo estrategikoa. PARTE HARTZEKO ESKUBIDEA.....</b>	<b>53</b>
<b>6. ildo estrategikoa. HIZKUNTZA ESKUBIDEAK.....</b>	<b>55</b>
<b>7. ildo estrategikoa. ESKUBIDE DIGITALAK.....</b>	<b>57</b>
<b>8. ildo estrategikoa. LAN DUINA IZATEKO ESKUBIDEA.....</b>	<b>59</b>
<b>9. ildo estrategikoa. ANTOLAKETA ERAGINKORRA IZATEKO ESKUBIDEA .....</b>	<b>61</b>
<b>2023 - 2028 KULTURA PLANA EZARTZEKO METODOLOGIA .....</b>	<b>65</b>
<b>IBILBIDE ORRIA 2023-2024.....</b>	<b>67</b>
<b>JARDUERA BAKOITZA GARATZEKO FITXA-EREDUA.....</b>	<b>74</b>



# AURKEZPENA

## *Kultura eskubide gisa ulertzen dugu.*

Eta Kultura Plan hau, geure Plana, egiteko oinarria izan da.

Proposatzen dugu kulturarako eskubidea Arabako kultura politiken eragile izatea eta pertsonen eta erakundeen garapena ahalbideratzea: kulturarako sarbide unibertsala, sorkuntzarako eskubidea eta kultura politika horietan parte hartzeko eskubidea.

Duela hiru urte, COVID-19ak gure ohiturak aldatzera, lehenetasunak birplanteatzera, gure politikak birbideratzera eta geure burua berrasmatzera behartu gintuen. Eta kultura beti egon zen hor, lagun egiteko.

Urte zail hauetan, lan egin dugu kultura sektorean inor atzean gera ez dadin. Eta plan hau baliagarria izatea nahi dugu, errealitate aldakorrera eta, batzuetan, segurtasunik gabekora egokitu ahal izateko.

Izan ere, kultura ezinbestekoa da norberaren eta taldearen garapen eta ongizaterako; kultura kohesioa da, nortasuna sortzen du, aniztasuna airtortzen du; pertsona kritikoak sortzen ditu, ingurunearekin konprometituak, pertsona sortzaileak.

Kulturak aberastasuna eta garapen ekonomikoa ere sortzen ditu, enpleguari eta berrikuntzari lotuta baitago.

Beraz, kulturaren inbertitzea komunitatean inbertitzea da, eta gure helburua da kultura politika Arabako Foru Aldundiaren estrategia globalean kokatzea.

Estrategia honetan, ezin dugu ahaztu kultura sektorea oso sektore profesional berezia dela, baina, aldi berean, oso ahula. Bai eta kulturaren bizitasuna, gure lurraldean, hura sortu, sustatu, zabaldu eta gauzatzen duten kultura eragileen indarraren arabera dela ere.

Gure helburua da eragile horiek -pribatuak zein elkarteetakoak izan zaintzea eta haiei laguntzea, haien garapena sustatzeko.

Bizitasun hori lurraldearen kultura garapen orekatuaren mende ere badago, inor atzean ez geratzea bermatzeko, gure udalerrri eta kuadrillek garatzen dituzten ekimenak babestuz.

Kultura eta Kirol Saileko diputatua naizen aldetik, eskerrak eman nahi dizkiet Arabako Kultura Plan hau egiteko prozesuan parte hartu duten guztiei.

Espero dut hark balio izatea kultura Arabako Lurralde Historikoko pertsona eta komunitateen ardatz izateko, balioak, esanahiak, nortasuna, askotariko harremanak eta jarduera ekonomikoa sortze aldera.

**Ana del Val Sancho**

Kultura eta Kirol Saileko Foru Diputatua



SARRERA

2023-2028 Arabako Kultura Planak epe ertain eta luzera Arabako Foru Aldundiak lurraldean dituen kultura politikak orientatzen eta gidatzen dituzten 9 ildo estrategiko nagusiak ikusaraziko dituen dokumentua izan nahi du. Plan horrekin batera, 2023-2024 ibilbide orria aurkeztu da, epe laburrean planaren urteko inplementazioa zehazteko, eta dokumentu arin eta malgua da, unean uneko testuinguru kulturalera egokitutakoa.

2023-2028ko Arabako Kultura Plana eskubide kulturalen kontzeptua kultura politiketan aplikatzean oinarritzen da. Horiek guztiak datoz Nazio Batuen Batzar Nagusiak 1948ko abenduaren 10ean Parisen aldarrikatutako Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren ikuspegi garaikide batetik.

Gaur egun, eskubide kulturalak formalki 3 dimentsiotan aitortzen dira:

- \_ Kultura eskura izateko eskubidea, hau da, dagoen kultura eskaintzaz gozatzeko eskubidea.
- \_ Sorkuntzarako eskubidea, kultura sortzeko eskubide gisa ulertuta.
- \_ Parte hartzeko eskubidea, hau da, inguruko kultura politiketan eragina izateko eskubidea.

Plan horrek aintzat hartzen eta garatzen ditu, eta kultura politikaren berezko beste dimentsio batzuetara hedatzen ditu, modu zabalean.

Erreferentziazko bigarren fokua garapen jasangarrirako 2030 Agenda eta haren 17 GJH edo Garapen Jasangarriko Helburuak dira, Nazio Batuek 2015ean onartuak. GJH horiek Arabako Kultura Planean proposatutako ildo estrategikoetan eta jardueretan islatzen dira, AFak lurraldean duen kultura politika iragazkor bihurtzeko. Horri esker, kultura eremu soiletik haratago joan daiteke, betiere kultura politiken eta hezkuntza politiken, genero berdintasunaren, gizarte kohesioaren, ingurumenaren, ekonomiaren eta abarren arteko beharrezko elkarrizketari helduz. Gaur egun, kultura politikak, eraldatzaileak izan nahi badute, ezin dute soilik kultura arloetatik egin. Zeharkako lana funtsezko bihurtu da.

2023-2028 Arabako Kultura Planak printzipio horiek guztiak aldi berean inspiratu, jaso, aldarrikatu eta proiektatzen ditu. Horrek egiten du aldi berean berezi, ausart eta sendo.

# METODOLOGIA

2023-2028 Arabako Kultura Plana egiteko, kontsulta estatistiko eta dokumentu kontsultaren zorroztasuna bateratzen duen metodologia erabili da. Metodologia horrek ikuspegi objektiboagoa ematen du Arabako kulturari inplikaturako eragile guztien ekarpenen aberastasunaren bidez, sektoreko pertsona, kolektibo eta erakundeen ñabardurak, kezka eta itxaropenak islatzen baititu.

Hala, honako hauek garatu dira:

- \_ Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Saileko talde profesionalen barne mintegi zabalak. Horietatik sortzen da Araban eguneroko bizitzan kulturarekin lan egiten dutenen barne ikuspegi profesionala.
- \_ Barne mintegi zabala AFAko beste sailekin, modu batera edo bestera Arabako kulturarekin nolabaiteko harremanak dituztenekin. Hortik sortzen da Arabako kulturari buruz beste talde profesional batzuek izan dezaketen ikuspegia, kultura horretan nolabaiteko eragina dutenena.
- \_ Bilerak hainbat udalerrri eta kuadrillatako kultura talde teknikoekin. Horietatik, Lurralde Historikoan, Arabako Foru Aldundian eta haren jardueretan dauden kulturaren ikuspegia, beharrak eta eskariak lortzen dira.
- \_ Kulturako mahai sektorialak, sektore bakoitzeko eragileekin. Horien erradiografia oso zehatza da kulturako sektore bakoitzaren behar, kezka eta eskaerei buruz. Hauek izan ziren eztabaida mahaiak:
  - . Literatura sorkuntza, liburutegiak eta argitalpen industria
  - . Artea eta diseinua
  - . Zuzeneko arteak
  - . Kultura-ondare materiala eta immateriala eta eremu aplikatuak
  - . Artikulazio-zerbitzuak
  - . Herritarren ekimenak
- \_ Arabako Kulturaren Foroa, herritarrei eta kultura sektoreetako eragileei irekitako topaketa gisa. Kultura arloko posizioak kulturako adituekin eta publikoarekin alderatzeko balio du.
- \_ Herritarrei irekitako inkesta. Beste formatuetan adierazi ez diren ekarpenak jasotzeko aukera ematen du.
- \_ Arabako 2023-2028 Kultura Plana idatzi, kontrastatu eta aurkeztea.

# DIAGNOSTIKOA: ARABAKO KULTURAREN IKUSPEGIA

# 1. Arabako lurralde historikoa, erradiografia laburra

Arabak 330.692 biztanle ditu<sup>1</sup>; horietatik 168.316 (% 50,90) emakumeak dira eta 162.376 (% 49,10) gizonak.

Arabak, Euskadiko azaleraren % 42a izan arren, biztanleriaren % 15,12 baizik ez du. Gainera, Gasteizen makrozefalia handia dago, 248.106 biztanlerekin Arabako biztanleriaren % 75 osatzen baitu. Oso urrun, bi udalerririk bakarrik, Laudiok (18.026) eta Amurriok (10.371) 10.000 biztanle baino gehiago dituzte. Ondoren, Agurainek bakarrik (5.237 biztanle) gainditzen du 5.000 biztanleko zifra. 28 udalerrri daude, Arabaren erdia baino gehiago, 1.000 biztanlera iristen ez direnak eta beste hamasei 1.000 eta 3.000 biztanle artean daude. Horrek biztanleria dentsitate oso txikiko lurraldea islatzen du, 108,89 biztanle/km<sup>2</sup>, Euskal Autonomia Erkidegoa ia hirukoitza izan arren, 302,26 biztanle/km<sup>2</sup> bakoitzeko, alegia.

Horrek eragina du kultura politiketan: lurralde zabal batean gaude, udalerrri oso txikiak ditu biztanleriaren aldetik eta geografikoki sakabanatuta daude, eta zaila da baliabideak eta publikoak batzea kultura politika bat gauzatzeko. Beste alde batetik, hiru lurralde historikoetatik, Araba izan da, luzaz balio absolutuan, baina batez ere biztanleriaren balio erlatiboan, azken 10 urteetan biztanle kopuruan gehien hazi dena: 43.132 egoiliar gehiago (% 15eko hazkundea 2002 eta 2022 bitartean, eta adierazle hori % 5,9koa da Gipuzkoan eta % 1,9koa Bizkaian).

Hori biztanleria identifikatzen duen eta kultura politiketan eragina duen beste datu batean islatzen da. Arabak du gazteen ehuneko handixeagoa (0 - 19 urte), % 19, Euskadi osoan % 17,90 izanik, eta adinekoen ehuneko txikiagoa (> = 65), % 21,80, herrialde osoan % 23,20 izanik.

Jaiolekuari dagokionez, Arabako biztanleriaren % 54,40 lurralde historiko berean jaio da, Gipuzkoan (% 71) eta Bizkaian (% 69,20) baino askoz balio txikiagoa. Era berean, Arabako biztanleen % 13,80 atzerrian jaiotakoak dira, eta balio hori Gipuzkoakoa (% 11,70) eta Bizkaikoa (% 11,10) baino

<sup>1</sup> Kontrarik adierazten ez bada, erakutsitako datuak Eustat - Euskal Estatistika Erakundearenak dira, eta 2022koak, azken eskuragarriak.

handiagoa da. Jatorrizko taldeei dagokienez, % 2,73 Magrebetik dator, % 2,65 Hego Amerikatik, % 1,19 Afrikako gainerako herrialdeetatik eta % 1,13 Ekialdeko Europatik, jatorri ohikoenak aipatzearen.

Gutxi gorabehera, emaitzen eskala bera dago espainiar estatuan jaiotako biztanleen artean: Arabako biztanleriaren % 21,40, Gipuzkoako % 14,40 eta Bizkaiko % 17,50.

Laburbilduz, Arabako Lurralde Historikoko biztanleria, Euskadi osokoarekin alderatuta, txikia da kopuruan eta proportzioan, oso sakabanatuta bizi da lurraldean oso herri txikietan (hiriburuan izan ezik), nahiko gaztea da, azkarrago hazten da, lurraldean bertan jaio da, baina proportzio askoz txikiagoan, eta Espainiako Estatutik eta atzerritik etorritako biztanle gehiago ditu.

## 2. AFA eta kulturen duen inplikazioa

Arabako Foru Aldundiak Kultura eta Kirol Saileko Kultura Zuzendaritzaren bidez garatzen ditu kulturaren arloko eskumenak, eta honako arlo hauetan jarduten du: artxiboak, liburutegiak, kultura ondare materiala eta immateriala, hezkuntza sustapena eta kultura zabalkundea.

Erakundearen eginkizun instituzionala hiru esku hartze maila handitan ezartzen da:

### 1. Lurraldea

Lehen maila horretan, AFAk lurraldeko kultura eragile publikoei laguntzen die: udalerriei eta kuadrillei. Haren eginkizuna da lurraldean kultura politikak definitzen eta ezartzen gidatzea, sareko lana erraztu eta koordinatzea, beste arlo eta sektore ekonomiko batzuekiko aliantzak erraztea, baliabideak sortzea eta kultura zerbitzuak, programak eta jarduerak abian jartzen laguntzea, aholkularitzaren, prestakuntzaren eta laguntza ekonomikoen bidez.

### 2. Kultura Sektorea

Bigarren atal batean, AFAk laguntza ematen dio Arabako kultura sektoreari, laguntza ildo desberdinen bidez, ekoizpen propioko programen eta zerbitzuak kontratatzekeo programen bidez lan aukerak sortuz, eta sektoreko eragileentzako prestakuntza eta aholkularitza programa espezifikoak ezarriz.

Gainera, AFAREN eginkizuna sektorearekin hitz egiteko prozesua gidatzea da, prozesu parte hartzaileak garatuz.

### 3. Herritarrak

Hirugarrenik, AFAk herritarrei zuzenean zuzendutako proiektu ugari garatzen ditu, kulturarako sarbidea sustatzeko sentsibilizazioaren, prestakuntzaren eta zabalkundearen bidez.

AFAk hainbat mailatan esku hartzen du horretarako:

- . Hainbat patronatutan dago, hala nola Santa Maria Katedrala Fundazioan, Arabako Artium Fundazioan, Añanako Gatz



Harana Fundazioan, UNEDen edo Gasteizko Arte eta Lanbide Eskolan.

- . Hitzarmenen bidez laguntzea, hala nola EHUrekin sinatutakoa; proiektu eta egitura desberdinetarako dirulaguntzak, Micaela Portilla Eskola Tailerrari, Ortzai Antzokiari, Garaioni, Azalari, Elizbarrutiko Arte Sakratuaren Museoari, Artziniegako Etnografia Museoari, museoen elkarteei eta Sarea sareko Arabako antzokiei emandakoak, besteak beste.
- . Prestakuntza programak egitea, hala nola antzerkia eskolara joatea, arte eszenikoen tailerra (TAE Araba), museoetako jarduera didaktikoak, hitzaldiak eta tailerrak Ignacio Aldecoa Kultura Etxean.
- . Ondarea zabaltzea eta kontserbatzea.
- . Foru Museoen Sarearen bidez, doan.
- . Sortzeko laguntza, bekak eta sariak emanez.
- . Babesletzak, hala nola Araiako Umore Antzerkia, Gasteizko Jazzaldia eta Azkena Rock Festival-a.
- . Irakurzaletasuna eta liburu eta liburutegirako sarbidea sustatzea Ignacio Aldecoa Kultura Etxearen bitartez.
- . Jai zikloen programazioa.
- . Kontzertu eta ikuskizunen programazio propioa.

### 3. AKPE 2017-2020, baloratu beharreko aurrekaria

2017an, Arabako Foru Aldundiak 2017-2020 aldirako Arabako Kulturaren Plan Estrategikoa aurkeztu zuen (aurrerantzean AKPE). Bertan, Arabako errealitate kulturala aztertzen zen, eta proposamen estrategiko batzuk planteatzen ziren, erakundearen kultura arloko jarduna bideratzeko.

Haren proposamen nagusiak 6 programatan egituratzen ziren, 34 ekin-tza zehazten zituztenak.

Perspektiban ikusita, AKPE 2017-2020 kulturaren egoera aztertzeko eta epe luzerako politika artikulatua egituratzeko lehen ariketa izan zen. Inplementazio epea igarota, aurrera egiteko, helburuetan sakontzeko eta proposamenak zehazteko beharra ikusi zen, eta horrek guztiak gehiago inplikatu zituen lurraldeko eragileak, kultura eragileak eta herritarrak.

AKPEren ebaluazioa 2021ean egin zen, eta Kultura eta Kirol Saileko zerbitzu guztien inplikazio txikia hauteman da; horietako askok zeharka baino ez dute parte hartu prestaketan. 2023-2028 Kultura Planean, gabezia metodologiko hori konpontzen saiatu gara, eta zerbitzu guztiak inplikatu ditugu hasiera-hasieratik.

AKPEren edukiei dagokienez, aplikazioari buruzko pertzepzioa aldatzen da, AFAko taldeen gogobetetze moderatutik hasi eta lurraldean lan egiten duten udal taldeen ikuspegitik emaitzen pertzepzio txikira arte. Era berean, kultura sektoreko eragileek eta herritarrek ez zuten sumatu 2017-2020 aldiko AKPEk bere egiteko adina interpelatu zituenik.

Ondoriozta daiteke 2017-2020rako AKPEk oso erronka eta helburu legitimoak zituela, baina oso modu orokorrean adierazita, inplementatzen eta egunerokoan aplikatzen zailak.

2023-2028 Kultura Plan berriak, aurrekoaren eguneratze, hedapen edo zehaztapen gisa planteatzen denak, estrategia zehatzagoak eta aplikazioan inplikaturiko diren eragile guztiek inplementatzeko modukoak proposatzen ditu.

## 4. Arabako errealitate kulturalaren ikuspegia

Errealitate baten ikuspegi oro subjektiboa da, eta aztertzen duenaren ikusmoldearen arabera. Diagnostiko fasean zenbat eta eragile gehiagok parte hartu, kasu honetan bezala, orduan eta ahots gehiagok adieraziko dute beren ikuspuntua, askotarikoagoak izango dira eta, batzuk, kritikoagoak.

Laburbilduz, Arabako kultura sektorearen errealitatea honako parametro hauen arabera defini daiteke, lurralde edo sektore edo herritar ikuspegiaren arabera ordenatuta, nahiz eta askotan batek bestera eramaten duen:

### Lurralde ikuspegia

#### Lurralde zentralizatua

Arabako Lurralde Historikoa oso zentralizatuta dago Gasteizen (Arabako biztanleriaren % 75), eta horrek kultura garapenari eragiten dio, batez ere sektore industrial eta sortzaileenei. Kulturak publiko masa jakin bat behar du bideragarria izan dadin, bai lurraldean/udalerrian bertan aurkeztuz gero, bai Araba osoan biratuz gero. Eta udalerrri gehienek ez dute publikoarentzako aukera nahikorik eskaintzen, ez kultura sorkuntza bultzatzeko, ezta biran hartzeko ere. Gasteiz, azkenean, zentraltasun geografiko eta biztanleriakoagatik, iristeko erraztasunagatik eta ohituragatik da Arabako kultura ekimen ia guztien erdigunea. Horrek esan nahi du gainerako lurraldea pobretu egiten dela kulturalki, eta haren jarduera ondare historikoan, garrantzitsua denean, eta herri kulturean eta kultura tradizionalan kontzentratzen da, jai zikloaren bidez. Artearen alorrean, hiriburutik kanpo garatu ahal izan diren jaialdien adibide batzuk nabarmentzen dira.

#### Lurralde txikia

Arabako tamaina erlatibo txikiak barne mugikortasuna errazten du. Erraza da lurraldean zehar mugitzea, komunikatzea eta egoerak, kezak eta erantzunak partekatzea. Biztanleria maila txikia denez, herritarrak hurbil, gertu eta eroso sentitzen dira.

## **Lurralde zahartua**

Arabako Lurralde Historikoak, Gasteizen duen biztanleria kontzentrazio handiagatik, hiribururanzko gazte exodoa eragiten du, eta gainerakoa biztanleria zahartuaren eta landatarraren profilararekin uzten du, nahiz eta kultura pertsona gazteek eta hiritarrek areago sortu eta dinamizatu.

## **Behar bezala hornitutako espazioak**

Oro har, ekipamendu onak daude biztanleei dagokienez. Arabako Lurralde Historikoa espazio sare batez hornitzen jakin izan du, bai espezifikoak (antzokiak, liburutegiak, museoak eta abar), bai balioaniztunak (kultura etxeak eta beste batzuk).

Oro har, populazio handienek espazio erosoak eta ondo hornituak dituzte, eta horrek esperientzia onak izatea errazten dio kultura jardueretan parte hartzen duenari. Herri txikienetan, erabilera anitzeko azpiegiturak erabiltzeak esan nahi du jarduera espaziora egokitu behar dela, eta ez alderantziz, horrek dakartzan mugak eta guzti.

Begi bistako arazo bat da udalerriek ez dutela batera elkarlanean lan egiten, eta horrek zerbitzu batzuk isolatzea ahalbidetzen du, hala nola liburutegiak edo artxiboak.

Gainera, ia ekipamendu guztien helburua kultura zabaltzea da. Horietako gutxi daude sektore artistikoen sorkuntza bultzatzera edo prestakuntza garatzera bideratuak.

## **Kudeaketa ez da oso espezializatua**

Kultura kudeaketan espezializazio profesional txikia dagoela adierazten da, batez ere toki mailan. Udal eta kuadrilla gutxiak dute kultura kudeatzailearen edo kultura teknikariaren figura (euren lurraldean kultura politika egokia ezartzeko adinako dedikazioa dutenak). Figura hori dagoenean, bere dedikazioa beste hainbat funtzioekin partekatu ohi du, kulturaren duen eraginkortasuna murriztuz.

## **Administrazio zurruna**

Administrazio publikoak funtzionamendu mekanismo batzuk ditu, prozeduren zuzentasuna bermatzeko, arbitrariotasuna saihesteko eta herritarren eskubideak bermatzeko pentsatuak. Horrek beharrezko izapidetzea dakar, askotan konplexua eta burokratikoa dena, eta batzuetan zaildu egiten du kultura sektorean behar den arintasuna.

## **Beharrezko finantzaketa egonkorra**

Pandemia mugarrria izan zen. Kulturak, sektore orok bezala, apustu ekonomiko bat behar du, gizarte kohesioan, lurralde orekan, kanpo proiektzioan, nortasun berrespenean, enplegu sorreran, garapen ekonomikoan eta abarretan inbertitzeko. Finantzaketa egonkorra behar da, lurraldean ekimenak babestu ahal izateko.

## **Epe luzera lan egiteko beharra**

Kultura politiketik, funtsean, herritarren artean kultura ohiturak sortzeko eta sendotzeko lan egiten dute, sormen ohiturak, partaidetza ohiturak edo kultura kontsumorako ohiturak izanagatik ere. Baina horretarako, lehenik eta behin, denbora behar da. Planek, programek, zerbitzuek eta jarduerak urteko jarduna planifikatu behar dute, urteetan zehar gartzen den esku hartze estrategikoago baten esparruan. Kulturako emaitzak (ez dira osasuna bezalako funtsezko sektorea, ezta eskola hezkuntza bezalako nahitaezko sektorea ere) epe luzera agertzen dira. Ohitura batek (irakurtzea, antzerkira joatea edo ondareaz interesatzea) denbora, tematzea eta iraunkortasuna eskatzen ditu. Epe laburreko politiketik edo udal batzuetan emaitza kuantitatiboak eta berehalakoak lortzean gehiegi oinarritzen direnek eragotzi egiten dute potentzial estrategikoa edo etorkizuneko duten kultura politiken garapena.

# Ikuspegi sektoriala

## Sektore hauskorra

Ez da Arabakoa, eta ez da unean uneko egoera bat. Kultura sektorea, askotan entretenimendutik hurbilago dagoen industriako eragile handietatik kanpo, hauskortasun egoeran bizi da etengabe, eta zailtasun handiak ditu jarraitutasuna bermatuko duen egonkortasuna izateko. Beti hasten ari garela iruditzen zaigu, ez baitakigu irauteko aukerarik egongo den. Horrek balio du arteen sorkuntzako eta interpretazioko profesionalentzat, lantalde teknikoentzat eta kultura kudeatzen duten talde askorentzat. Finkatze ezaren ikuspegi hori udal aurrekontuei, kultura ekipamenduei, jarraipena bermatuta ez duten zerbitzu eta programei eta abarri ere aplikatu dakieke. Hori larriagotu egiten da, bereziki, Araba bezalako lurralde batean, udalerrri txiki eta sakabanatuak baititu, eta oso aukera gutxi kulturarako eta bertako eragileetarako baliabideez hornitzeko. Iru-dipena dago Bizkaiak eta Gipuzkoak bereganatzen dutela kultura arloko enpresa sare gehiena.

## Existitzen ez diren sektoreak

Hala, Araban ia existitzen ez diren sektoreen multzo bat dago. Esan daiteke argitalpen industriak eta ikusizko arteek presentzia txikia dutela, agenterik (argitaletxeak...), ekipamendurik (galeriak, antzoki pribatuak, zinemak...), proiekturik edo laguntzarik ez dutelako. Nabarmendu behar da liburutegien sektorea, definizioz lurraldean errotuta dagoen gunea, Eusko Jaurlaritzaren eskumen eskusiboa dela, nahiz eta administrazioen arteko lankidetzak bultzatzen duen irakurketa publikoko sarearen bidez, bai eta liburutegien euskarri eta sorkuntzarako funtsez hornitzea ere.

## Sektore konprometitua eta parte hartzailea

Bestalde, kultura sektoreak intentsitate eta konpromiso pertsonal eta sozial handiarekin bizi du bere zeregina. Batez ere, sormenaren esparrutik, baina baita kultura elkarrekin eta kultura kudeaketako profesionaletatik ere, askotan ohiko lan parametroak gainditzen dituen dedikazioa dago. Covid-19aren pandemian, kulturak jakin zuen munduari erakusten oso bizirik zegoela, une delikatuetan suspertzen gintuela, hurbil genduela eta gizartearekin konprometituta zegoela. Gizartean duen inplikazio hori parte hartzeko espazioen eskaera handi batean islatzen da. Kultu-

rako jendeak eragile aktiboa izan nahi du komunitateko bizitza kulturala hausnartu, eztabaidatu, proposatu, erabaki eta kudeatzeko. Sektore eskuzabala eta aldi berean zorrotza da.

### **Elkartze mugimenduaren indarra**

Kultura eragileen dinamismoa elkarte mugimenduaren existentzian eta ekintzan agertzen da gehien; izan ere, herri askotan mugimendu horrek eusten dio kultura bizitzari. Bere presentzia eta papera funtsezkoa da jai zikloan agertzen den kultura tradizional eta herrikoia jarrapenean (inauteriak, dantzak, dantza eta musika tradizionalak, eta abar) Aitzitik, askoz ere presentzia txikiagoa dute arteen edo ondare historikoaren garapenean. Administrazio publikoaren zeregina elkarte ekimenak babes-tea izaten da, dela dirulaguntzaren bidez, dela hitzarmenaren bidez, dela baliabide materialak emanez eta bere jardueren komunikazioa erraztuz. Komunitatetik sortutako indar gisa, oso desberdina izan daiteke udalerrri batetik bestera. Kontuan hartu behar da sektore hauskorra dela, pertsonen borondatezko jarraitutasunaren, laguntza publikoen eta abarren mende baitago.

### **Hizkuntzaren garrantzia**

Kultura baten ezaugarri bereizgarrienetako bat eta aberastasun handienetako bat bere hizkuntza nortasuna da, eta hori Euskadin euskara da, herrialdearen berezko hizkuntza. Jendea euskaraz ere mintzatzen da, kontzertuetan euskaraz abesten da, antzerkian euskaraz jarduten da, liburuak euskaraz ere argitaratzen dira, bilerak euskaraz egiten dira edo jarduerak publikoki euskaraz ere komunikatzen dira. Gizarte bat are aberatsagoa da hizkuntza aniztasuna dagoenean, betiere hizkuntza horiek harmonian elkarrekin bizi badira, elkar osatzen badute eta elkarri hitz egiten badiote. Korrante globalizatzaileek, hain urrun ez dagoen historiak eta gaizki ulertutako zenbait gizarte ohiturek hizkuntza batzuei sozialki beste hizkuntza batzuen gainetik heltzea eragiten dute. Erakunde publikoek arreta jarri behar dute nabarmentzeko zailtasun handiagoa duten hizkuntzak orekatzeko eta sustatzeko, batez ere herrialdearen berezko hizkuntza denean. Aberastasun hori sustatzen jakin behar da, eta kulturak aukera ugari eskaini behar ditu horretarako.

## **Ondarearen aberastasuna**

Ondare historikoa aberastasun handia da Arabarentzat eta udalerrientzat, lurralde historiko bereko nahiz beste jatorri batzuetako bisitariak erakartzeko faktorea baita. Gainera, hori guztia hezkuntza programekin, pakete turistikoeekin, kultura jarduerekin eta beste esparru batean garatu nahi diren beste batzuekin batera garatu ohi da. Bere garaian, ondarearen inguruko enpresa sare hasi berria garatu zen, lan teknikoak egiten zituzten enpresetatik (indusketak, kontserbazioa, eta abar) jarduera hezigarriak eta turistikokoak proposatzen zituzten enpresetara (bisitak, tailerrak, etab.). 2008ko krisiarekin, enpresen eta profesional autonomoen mikrosare horrek gihar asko galdu zuen. Une honetan, hainbat programa eta ekintza propositiboren bidez berreskuratzen hasi da.

## **Gizartean ikusgarritasun handiagoa behar duen sektorea**

Gizarteak, oro har, asko baloratzen du kultura, modu kontzeptual eta teorikoan behintzat. Kulturala gurea da, gizaki egiten gaituena eta beti defendatzen duguna. Baina jarrera identitarioago eta printzipiozkoago hori ez da nahi bezain sarri eramaten praktika kulturaletara. Adierazpen artistikoak, batzuetan klasikoenak eta beste batzuetan garaikideenak, elitista, urrun edo korapilatsutat hartzen dira. Horregatik, programazio zorrotzenek (musika klasikoa, arte garaikidea edo irakurketa poetikoak, kasu muturrekoago batzuk bakarrik jartzeagatik) zailtasunak izaten dituzte publikoa erakartzeko. Kultura tradizionalak eta herrikoiak, liburutegiek, musika modernoak edo proposamen mediatikoagoek, beste adibide batzuk jartzearren, publikoaren erantzun handiagoa izaten dute. Oro har, kulturarekiko ikusgarritasun eta sentsibilitate handiagoa falta da.

## **Sektore atomizatua**

Kultura sektorearen beste gaitz endemiko eta unibertsal bat bere eragileen arteko harreman eta koordinazio falta da. Alde batetik, hainbat esparru, hala nola zirkua eta literatura, musika eta ondarea, erlazionatzeko zailtasun kontzeptual eta funtzionalagatik gertatzen da hori, kasu batzuk bakarrik aipatzearren. Haien errealitateak, profesionalak, dinamikak, publikoak eta abar oso desberdinak dira. Bestalde, berezko ezauzarriek, batez ere sektore artistiko batzuenak, jendea oso bakarka lan egitera eramaten dute, eta, beraz, zaila da elkartzeko ikuspegia izatea, presentzia, indarra eta elkarrizketa irabazteko.



## **Sektore endogamikoa**

Jardueretan eta parte hartze guneetan esku hartzen duten kultura eragileak beti berberak direla ematen du. Badirudi kultura sektoreko dinamismoak konpromiso bat behar duela, eta jende gutxi dago konpromiso hori hartzeko prest.

## **Sektore isolatua**

Batzuetan bere baitan biltzen den sektorea dela salatuta, gizartea osatzen duten beste sektoreekiko harremana eta koordinazioa ez da behar bezain erraza. Kultura egokia da hezkuntzaren, gazteriaren, genero berdintasunaren, gizarte kohesioaren, hiri plangintzaren, sustapen ekonomikoaren, turismoaren eta abarren sektoreekin hitz egiteko eta haiekin osatzeko, baina jarrerak, aukerak, plataformak eta baliabideak falta dira mundu guztiari mesede egingo liokeen zeharkako lan horretarako.

## **Desorekak dituen sektorea**

Borondatezko gozamenaren edo kontsumoaren sektore gisa, kultura oso modu desberdinean ikusten eta bizitzen da pertsona edo kolektibo bakoitzaren nortasunaren eta jatorriaren arabera. Ikasketa akademikoaren mailak, errenta mailak, jatorri geografikoak, Arabako gizartearekiko sustraitzeak, generoak, adinak eta beste faktore batzuek oso bestelako irisgarritasun maila eta praktika kulturala eragiten dute, desorekak sortzeraino, batzuetan oso nabarmenak. Gizarte taldeen arteko alde horri heltzen ez bazaio, gero eta handiagoa da, eta, zenbait kasutan, kultura elitistago baten eta beste kultura herrikoiago baten arteko bereizketa sortzen da, edo, beste kasu batzuetan, zuzenean, kultura kontsumo baten eta ez kontsumo baten artekoa, gizarteko sektore zabalak kultura eskaintzetatik aldentuta baitaude, erakundeen eskaintzetatik behintzat. Gizarte batek onartu beharko ez lukeen egoera.

## **Babesletza ikusezina**

Arabako enpresek tradizio gutxi dute kultura programak eta jarduerak babesteko. Ez dago laguntza ekonomikorik. Horrela, kulturaren finantzaketa ia erabat sektore publikoaren mende dago, politika aldrebesei eusten baitie, goraberatsuei, kultura sektoreei ematen zaien laguntzari dagokionez.

## **Publiko gaztea**

Publiko gaztea existitzen da, nahiz eta batzuetan administrazio publikoaren radarretik urrun egon. Publiko orokorrari eskaintzen zaizkion programetatik, zerbitzuetatik, ekipamenduetatik eta jardueretatik pasatzen ez diren espazio eta mekanismoetan dago; hortxe mugitzen eta aktibatzen da. Eta urteen poderioz, herritarren ohiturak aldatuz doaz, gazte taldeak gehitu ahala. Administrazio publikoak gazteengana irits daitezke, eta, horretarako, funtsezkoa da kolektibo horren premia espezifikoei erantzuteko sortutako erakundeekin lankidetzan aritzea, hala nola Gazteriaren Foru Erakundearekin, Arabako Foru Aldundiaren barruan.

# 5. Diagnostikoa, laburbilduz

## Arabako Lurralde Historikoa

Arabak azalera handi samarra du, baina aski irisgarria, biztanle gutxi dituena, eta biztanleria Gasteizen zentralizatzen duena, argi eta garbi hirikoa, gaztea eta kulturalki dinamikoagoa dena; aitzitik, landa eremu zabalak daude, herri txikiak, populazio sakabanatua dutenak eta zahartuago daudenak. Arabak Espainiako eta atzerriko biztanle gehiago hartu ditu Euskadiko gainerako lurraldeetan baino.

## Kultura lurraldean

Udalaren kultura politika gehienak kultura tradizionalen eta herrikoian oinarritzen dira, funtsean jai zikloan. Epe luzearako estrategietan baino gehiago eguneroko ekintzaren epe laburrean zentratuta egon ohi dira. Udalerriek azpiegiturak izan ohi dituzte, nahiz eta gune kultural espezifikoak urriak eta gehienak txikiak eta balioaniztunak izan, aurrekontu txikia dute, ez pertsonal askorik eta kulturaren kudeaketan gutxi zentratua; horrek AFAREN laguntza tekniko eta ekonomikoaren mende jartzen ditu.

## Arabako kultura sektorea

Arabako kultura eragile pribatuen eta elkarten sektoreak beste lurralde errealtate batzuen antzeko egoera du, lurraldearen berezko errealtateak larriagotua. Agenteek hauskortasuna, atomizazioa, isolamendua, ikusezintasuna eta desorekak adierazten dituzte praktikan eta sarbidean, eta hori instituzioen nolabaiteko utzikeria eta publikoari aurre egiteko zailtasun gisa adierazten da. Arteetan, ondarean, elkartze aberastasunean eta hizkuntza propioaren kemenean ere indarra dagoela egiaztatu da. Horrek guztiak eragile kulturek gizartearekin duten konpromisoa adierazten du.

## AFA, kultura eragile gisa

Erakunde gisa, kultura arloko ekintza da, Gasteizko Udalarekin batera, Lurralde Historikoaren kultura eragile nagusia. Bere talde profesional eta baliabide ekonomikoa medio, lurraldearen kulturari eta kultura eragile pribatuen eta elkarten ekimenei laguntzeko eta herritar guztiei zerbi-

tzu zuzenak eskaintzeko ardura du. Bere funtzioak onarpen adierazpen orokorrak jasotzen dituen arren, zerbitzuak koordinatzeko barne-lana, mikrolurraldeko ezarpen handiagoa eta kulturari laguntzeko neurriak hobetzeko tarteak du oraindik ere.

Laburbilduz, asmo handiagoko, zabalagoko, profesionalizatsaileagoko, zorrutzagoko, behar bezala planifikatutako eta egokiro finantzatutako foru jarduerak planteatzeko unea da, gure lurraldeko eta lurraldetik kanpoko kultura politikak sortzea, hobetzea eta hedatzea ahalbidetuz.

ESTRATEGIA  
PROPOSITIBOA:  
ARABAK  
KONPROMISOA  
DU ESKUBIDE  
KULTURALEKIN

# 1. AFA-ren kultura politika berria gidatzen duten balioak

Ez dago kultura politikarik hura orientatu eta zehaztu beharreko misioaren eta ikuspegiaren arabera definitzen duen baliorik gabe. Kultura politika batek ez du neutroa izatea bilatu behar, sektorean, lurraldean eta gizarte osoan kokatu eta inplikatu nahi du. Horretarako, balio edo printzipio estruktural batzuk ditu eta erakusten ditu. Plan honen ezarpenean inplikaturako eragile guztiek partekatzen dituzte balio horiek. Hain zuzen, horiek dira izateko arrazoia ematen diotenak. Horretan eta horretarako lan egitea motibagarria da eta proposamenak egituratzen ditu eta kulturak gizarte baten garapenean eta pertsonen eta komunitatearen zoriontasunean laguntzen duela pentsatzeko aukera ematen du.

2023-2028 Arabako Kultura Plana definitzen duten honako balio hauetan oinarrituta egituratzen da:

- \_ **IRISGARRITASUNA** Planaren printzipio gidari gisa, erraztasunak sortuz pertsona eta kolektibo guztiek kultura ekintzaz gozatzeko aukera izan dezaten, sorkuntzatik, asistentziatik, parte hartzetik, etab.
- \_ **EKITATEA**, irisgarritasun hori pertsona guztiengana berdin iristen dela ziurtatzeko, generoa, jatorri soziala, sorlekua, adina eta abar edozein direla ere.
- \_ **HURBILTASUNA**, aurreko balioak errazteko, herritarrak kultura ekintzagarriki interpelatuta senti daitezen, zerbitzu, programa, ekipamendu, jarduera eta abar guztietan.
- \_ **IRAUNKORTASUNA**, kulturak gure gizartearen, gure gizarte oinarriaren eta gure natura ingurunearen garapen harmonikoan ere laguntzen duela ziurtatzeko.
- \_ **ANIZTASUNA**, jakitun izanik kulturaren eta gero eta gizarte poliedrikoagoen oinarria dela, eta adierazpen artistiko eta sozialak muga guztiak zeharkatzen dituela eta praktika hibridoagoak dituela, betiere aintzat harturik aberastasuna gurutzaketan eta aniztasunean sortzen dela eta arlo horretan dagoela.

- \_ **IDENTITATEA**, komunitateak bere sentimenduak, sentsazioak eta tradizioak berresteko eta munduari erakusteko kultura politikaren ardatz gisa.
- \_ **BERRIKUNTZA** aurrera egiteko modu gisa, baita tradizionalen ere, gizarte bat definitzen duten printzipioak aldatzen direlako, baina, batez ere, kultura egiteko modua aldatu behar dutelako.
- \_ **ZEHARKAKOTASUNA** ahaleginak, inbertsioak eta ilusioak errentagarri bihurtzeko, jakinda lan kooperatiboak aberastasuna sortzen duela edukietan eta proposamenetan, baina baita baliabideetan eta emaitzetan ere.
- \_ **BELAUNALDI ARTEKOTASUNA**, berriz ere elkar aberastea bilatuz, topaketan, elkarbizitzan eta trukean oinarrituta.
- \_ **KALITATEA**, proposamen oro definitzeko, publikoak erakartzeko eta pertsonak gogobetetzeko ardatz gisa, kultura esperientzia pozgarritzat hartuta.

## 2. Misioa eta ikuspegia

### Misioa

Arabako Lurralde Historikoan pertsona eta kolektibo orok, bere generoa, jatorri soziala, sorlekua eta adina edozein izanik ere, kulturarekin gozatzeko eta ikasteko aukera izan dezan ahalbidetzea, praktikaren, sorkuntzaren, asistentziaren edo parte hartzearen bidez; berrikuntzatik eta lan kooperatibotik, bizipen esanguratsuak ematen dituzten kalitatezko proposamenak sortzen ahaleginduz, pertsonak aberasten dituztenak topaketatik, bizikidetzatik eta truketik; garapen harmonikoan, gizarte-ongizatean eta Arabako kultura-ondare materiala eta ez-materiala kontserbatzen eta balioan jartzen lagunduz.

### Ikuspegia

Kultura ardatz egituratzaile bihurtzea Arabako Lurralde Historikoko pertsona eta komunitateentzat eta, aldi berean, horren bidez, balioak, esanahiak, identitatea, askotariko harremanak eta jarduera ekonomikoa sortzea, betiere kultura ondarea kontserbatzeko, mantentzeko eta erabiltzeko baldintza ezin hobek bilatuz. Kultura eta Kirol Sailak, sektorearekin batera, prozesu horren buru izan behar du, lurraldearen ikuspegi berronkatzaila eta aukera berrien sustatzailea izanik, etorkizun hobea bermatzeko.



### **3. Kulturaren erronkak Araban**

Kulturaren plan estrategiko bat helburu estrategiko jakin batzuk lortzera edo lortzen laguntzera bideratuta dago. Helburu estrategiko horiek Arabako gizarteak eta, ondorioz, bertako erakunde eta eragileek kulturaren arloan dituzten erronka nagusiak dakartzate. Helburuek plan osoa gidatzen dute, haren definizioa, inplementazioa eta ebaluazioa. Plan estrategiko baten eraginkortasuna, arrakastaren berme gisa, ez da jarduera kopuruaren araberakoa, baizik eta jarduera horien irismenaren eta aldeez aurretik ezarritako helburuei egindako ekarpenaren araberakoa.

Arabako Kulturaren Plan berri honek 3 erronka ditu, 2017ko planean identifikatu zirenak.

#### **1. ERRONKA. GIZARTEAK KULTURAREN BALIOAZ DUEN PERTZEPZIOA AREAGOTZEA**

Planaren helburua da kulturak garapen eta ongizate indibidual eta kolektiboan duen garrantzia gizariteari helaraztea. Kulturari inbertitzea komunitate osoaren alde egitea dela erakutsi nahi du. Kulturak gizartearen kohesionatzen laguntzen du, loturak estutzen ditu, identitate partekatua sortzen du, aniztasuna aberastasun gisa onartzen du, trukeak eta egitura sortzen ditu eta lurraldea proiektatzen du. Maila indibidualan, kulturak pertsona kritikoak sortzen ditu inguruan dutenarekin, zorrotzak edukietan eta formetan, biziak eguneroko ohituretan, konprometituak ingurune sozial eta naturalarekin, sortzaileak eta sentikorrek, komunitatean murgilduak eta planteamendu kulturaletan parte hartzen dutenak.

#### **2. ERRONKA. KULTURA ETA SORMEN SEKTOREAREN GARAPENA SUSTATZEA**

Kultura ekintzaren bizitasuna ekintza sortu, sustatu, zabaldu eta gauzatu duten eragileen indarraren araberakoa da. Kultura politika osasuntsu baten helburua da eragile guztiek sektorea egituratzen laguntzea, bakoitzak bere funtzioetik eta baliabideetatik. Indar konbergenteen oreka horretan, botere publikoek erantzukizun bikoitza dute: Arabako gizaritearen kultura motorra izatea zaintzea eta beste motorrak babestea, bai sektore pribatukoak (artistak, konpainiak, enpresak, etab.), bai elkarte sekto-

rekoak (kolektiboak, taldeak, elkarteak, fundazioak, etab.). Eta, gainera, AFAk sektoreari laguntzeko duen rol hori bi zentzutan egin behar du: zuzenean Arabako Lurralde Historikoko kultura eragileekin, baina baita hori jada toki mailan egiten duten udalerrriak sustatuz eta babestuz ere.

### **3. ERRONKA. LURRALDEAREN GARAPEN KULTURAL OREKATUA INDARTZEA**

Foru Aldundiaren oinarritzko eginkizuna lurraldean jarduten duten eragileei laguntzea da, eta horiek nagusiki udalerrriak eta kuadrillak dira. Eta Araban, AFaren rol hori are nagusiagoa da udalerrien populazio tamaina txikiagatik (hiriburua alde batera utzita). Plan honen helburua da kulturak lurraldeari bizia ematen dion, aniztasunaren barruan nortasuna eskaintzen dion, beste lurralde batzuekin lotzen duen eta bere eremutik haratago proiektatzen duen elementu batez hornitzeko duen zeregina indartzea. Testuinguru horretan, AFAk zaindu behar du Arabako inor ez dela atzean edo kanpoan geratzen lurraldearen zati jakin batean bizi-tzeagatik, biztanleria osoarentzako oreka eta aukera bermea bilatuz.

2017ko plan hartan, erronken laugarrena Arabako 2023-2028 Kultura Plan berriak ezartzen duen estrategiaren ildo nagusi gisa ezarri da orain.

#### *ESTRATEGIA OROKORRA*

Horren guztiaren ondorioz,  
Arabako Foru Aldundiak kultura-politika  
erakundearen estrategia globalean kokatzen du.

# ESKUBIDE KULTURALAK, KULTURA POLITIKAREN ERAGILE GISA

Herritarrek kulturarako duten eskubideari emandako proposamen erantzun gisa hartu behar dira kultura politikak. Eskubide horiek, ordezkatzen dituzten balioei lotuta, adierazpen formaletik haratago doaz, eta Arabako Foru Aldundiaren 2023-2028 aldirako lan ildo guzti-guztietan zehazten dira.



# 1. ildo estrategikoa.

## KULTURA ESKURA IZATEKO ESKUBIDEA

Herritarrek kulturaren gainean duten eskubide nagusia da, eta uneoro, toki eta ekintza guztietan, garatzeko aukera egon behar da. Era guztietako erakundeek behar diren ekimenak jarri behar dituzte abian, betetzen direla ziurtatzeko. Hortik abiatuta zehazten dira beste eskubide kulturalak.

### Helburu estrategikoa:

Kulturarako sarbidea bermatzea eta sustatzea, Arabako biztanleriaren profilen aniztasun osoa kontuan hartuta, eta ziurtatzea inor ez dela geratzen Arabako Lurralde Historikoko kultura bizitzatik kanpo, eta bereziki lan egitea tradizioz nagusi den kultura sistematik kanpo geratu diren kolektiboekin.

### Jarduerak:

#### 1.1. Kulturarako irispiderako politikak

- 1.1.1. Herritarren Kultura Eskubideei buruzko Foru Araua garatzeko lan egitea.
- 1.1.2. Gutxieneko ekipamenduen eta kultura eskaintza egonkor eta puntualaren estandarren edo adierazleen mapa ezartzea, udalerrri bakoitzeko, biztanle kopuruaren arabera.
- 1.1.3. Arte, ondare eta kultura tradizional eta herrikoiaaren sektore bakoitzaren estrategia espezifiko bat egitea, eskariak eta ekarpenak jaso eta plan honen ildo nagusiak zehazteko.
- 1.1.4. Publiko eta ikusle berriak garatzen dituzten programazioetan estrategia/ekintza askotarikoak eta berritzaileak sustatzea, belaunaldien arteko hedapena, dibertsifikazioa eta erreleboa sustatuz.
- 1.1.5. Prestakuntza zentro publikoak zein pribatuak (arte eskolak, musika, dantza, antzerkia eta abar) sustatzea.
- 1.1.6. Arabako kultura arloko egileak, konpainiak, profesionalak eta enpresak sustatzea.

- 1.1.7. Ohikoak ez diren guneetan programatzea, publiko berriak erakartzeko estrategia gisa.
- 1.1.8. Sektore bakoitzeko elkarte profesionaleri laguntzea eta haiekin hitz egitea.

## **1.2. Kultura ekintzaz sentsibilizatzea**

- 1.2.1. Arabako biztanleak kultura ekintzarekiko sentsibilizatzeko kanpaina bat garatzea, gizarteak kulturaren balioaz duen pertzepzioa areagotzeko (arteak, ondarea, kultura tradizionala eta herrikoia, etab.) eta gizarte askeagoa, zoriontsuagoa, biziagoa, askotarikoagoa eta erakargarriagoa eratzen laguntzeko.
- 1.2.2. Partikularren jabetzako kultura ondare bibliografiko, dokumental eta arkeologikoa zaintzearen garrantziari buruzko sentsibilizazio jarduerak antolatzea.
- 1.2.3. Familia programazioari arreta berezia eskaintzea, bai hainbat hizkuntzatako ikuskizunei dagokienez, bai kultura ohitura eta kezka berriak sortzen dituzten hastapen eta sentsibilizazio tailer ludikoei dagokienez.
- 1.2.4. Familiak gehiago inplikatzeko, jarduera bateratuen bitartez: gurasoak eta seme alabak, baliabideen gidak argitaratuz, gurasoak trebatuz, etab.
- 1.2.5. Belaunaldien arteko loturak gehiago lantzea, norabide bikoitzeko faktore onuragarri gisa.
- 1.2.6. Kultura ekintza sustatzeko ekintzak bultzatzea, bai maila pertsonalean, bai familiaren barruan, haurren, nerabeen eta gazteen adinean, hala nola liburu txeketa edo kultura txeketa, adin jakin bat betetzean erosi edo erabiltzeko.
- 1.2.7. Familiei zuzendutako haurren sentsibilizazio eta fidelizazio programa bat ezartzen dela zaintzea.
- 1.2.8. Publikoak sentsibilizatzeko eta leial bihurtzeko programa bat ezartzen dela zaintzea, helduentzat eta bizialdi osoko ikas-kuntza prozesuan daudenentzat.
- 1.2.9. Herritarren ekimenetan eta elkarte mugimenduan aktiboki parte hartzearen garrantziari buruzko kanpainak aktibatzea eta herritarren kontzientzia sortzea.
- 1.2.10. Kultura jardueretan kontziliazio neurriak hartzearen bideragarritasuna aztertzea: ordutegi egokiak, bilera telematikoak,

umezain zerbitzua eta gurasoei kultura bizitzan parte hartzea errazten dieten beste batzuk (ikuskizunak, bisitak, bile-rak, etab.).

1.2.11. Irakurzaletasuna sustatzeko proposamen berritzaileak egitea, batez ere gazteen artean.

1.2.12. Kultura Etxeak Arabako gizartearen zerbitzura dagoen gune kultural gisa duen eginkizuna indartzea, baita irakurketa, ezagutza eta praktika kulturalaren sustatzaile gisa ere, udal-erri eta kuadrilletan antzeko liburutegi edo gune kulturalekin lankidetzan arituz.

1.2.13. Liburu azoka orokorrak eta espezializatuak egiten laguntzea.

### **1.3. Genero berdintasuna**

1.3.1. Kultura sektorean genero berdintasunerako plan bat egitea, emakumeek sorkuntza, programazio, erabaki, kudeaketa, prestakuntza eta komunikazio guneetan eta bestelakoetan presentzia eta sarbide parekidea izan dezaten. Horrek edukien sorkuntzari eta emisioari ere eragiten die. Plan horrek prestakuntza espezifikoa eskatzen die AFAko talde teknikoei, udal-erriei, koadrilei eta profesionalei, enpresei eta elkartei, plana arrakastatsua izan dadin.

1.3.2. Lurralde osoan kultura eskaintza orekatua, zabala eta askotarikoa izan dadin bultzatzea, batez ere landa inguruneetan, estereotipo eta rol sexistak haustea sustatuko duena eta emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izango duena.

1.3.3. Emakume sortzaileek, interpreteek eta kulturaren kudeatzaileek egindako ezagutza, ikusgarritasuna, sorkuntza eta ekoizpena zabaltzea eta bultzatuko duten jarduerak bultzatzea, horretarako espazioak sortuz edo erraztuz eta kultura sektorean emakumezko enpresariak sustatuz.

1.3.4. Emakumeen kultura aniztasunaren eskaerak aztertzea eta asetzea; desberdintasun adierazleak biltzea; genero irizpideekin identifikatzea emakumeek ondareari utzitako legatua nola gordetzen, aztertzen eta zabaltzen den; eta abar.

1.3.5. Emakume sortzaileen ekarpen historikoari eta egungoari buruzko ikerketa sustatzea, historiografia artistikoa eta haien obren balorazioa zabaltzeko.

- 1.3.6. Emakumeek Arabako historian izan duten zeregina balioes-  
tea, ikerketen, erakusketen, argitalpenen, hitzaldien eta aba-  
rren bidez.
- 1.3.7. Emakumeek ondareari eta kulturari egindako ekarpen histori-  
koak ikusaraztea bultzatzea, eta haiek ez egoteari edo ager-  
tzeari buruzko interpretazio berriak sortzea.
- 1.3.8. Emakumeek sortutako, sustatutako edo protagonizatutako  
ondarea ikusarazten duten jarduerak bultzatzea, gizarte me-  
moría egitea eta berreraikitzea bultzatzen dutenak, bai eta  
memorializazio prozesuak ere, genero ikuspegitik.
- 1.3.9. Emakumeen kultura sorkuntza eta ekoizpena sustatuko du-  
ten ekintza positiboko neurriak bultzatzea.
- 1.3.10. Irudikapenean eta arte eta kultura produkzioan emakumeen  
aniztasuna ikusaraztea bultzatzea, batez ere emakumeak or-  
dezkaritza txikia duen eremuetan.
- 1.3.11. Sexuaren arabera bereizitako datuak biltzea, batez ere kultura  
jardueren, proiektuen, programen eta zerbitzuen ebaluazioan.
- 1.3.12. Genero berdintasunaren irizpideei pisu handiagoa ematea  
Kultura Zuzendaritzaren dirulaguntzetan.
- 1.3.13. Espazio seguruen mekanismoak aktibatzea Kultura Zuzenda-  
ritzaren berezko programazioetan.
- 1.3.14. Arabako udalerrri guztietan jai jarduera bereziki jendetsuetan  
beharrezkoak diren mekanismoak ezar daitezen sustatzea,  
eraso sexistak saihesteko (espazio seguruak, argiztapena, ga-  
rraioen arrazionalizazioa, puntu moreak...).

#### **1.4. Kultura eta aniztasun sozial eta funtzionala**

- 1.4.1. Ziurtatzea programazio publikoek gure gizartearen aniztasu-  
na integratzen, hartzen eta jasotzen dutela edukietan, eragi-  
leetan eta publikoetan.
- 1.4.2. Komunitateen eta kolektiboen arteko trukea indartzea, in-  
teresa izan dezaten eta izateko eta egiteko moduak ezagut  
ditzaten.
- 1.4.3. Arabako kultura ekipamenduek araudia bete dezaten eta di-  
bertsitate funtzionala duten pertsonentzat guztiz irisgarriak  
izan daitezen bultzatzea.



- 1.4.4. Arabako Lurralde Historikoko kultura jarduerak, eta, bereziki, AFAk zuzenean antolatzen dituenek, dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako espazioak egokitzea sustatzea: argi ahulagoak ordu jakin batzuetan, erabateko isiltasuna bermatzen duten eremuak, hitz egin daitekeen eremuak...
- 1.4.5. Liburutegiek funts egokituak (irakurketa erraza, Braille, audioliburuak, etab.) izan ditzaten sustatzea, eta kultura ekipamenduetara, bereziki liburutegietara, iristeko zailtasunak dituzten pertsona eta familientzako etxer etxeko zerbitzuak bermatzea.
- 1.4.6. Liburuetan, ipuinetan, filmetan, antzezlanetan eta dantza lanetan edukiak sartzea, pertsonaia garrantzitsuetakoren baten dibertsitate funtzionala izanik.
- 1.4.7. Kultura jardueretan parte hartzeko sorospena behar duten pertsonentzako laguntza izatea: laguntza, zeinu mintzaira, etab.
- 1.4.8. Ekipamendu eta programa bakoitzeko talde teknikoan prestakuntza ematea, dibertsitate funtzionala duten pertsonengana iristeko.

## **1.5. Kultura eta gazteria**

- 1.5.1. Nerabeen eta gazteen kulturarako sarbidea bereziki lantzea, haien proposamenak, edukiak, antolaketan duten inplikazioa, komunikazioa eta abar kontuan hartuta.
- 1.5.2. Haurtzarotik (eskolen eta familien laguntza funtsezkoa da) nerabearora eta gaztarora igarotzea bereziki lantzea (horietan jada ez dago laguntza hori eta autonomia eta erantzukizun handiagoa dute) kultura kontsumoaren esperientzian.
- 1.5.3. Gazteen proposamenak bereziki babestea laguntzetan, programazioan eta abarretan.
- 1.5.4. Kulturarekiko sentsibilizazio eta laguntza kanpaina espezifikoak sortzea gazteentzat.
- 1.5.5. Arabako kultura ondare dokumentalaren, bibliografikoaren eta arkeologikoaren kontserbazioaren eta hedapenaren arloan azterlanak egiten dituzten ikertzaile gazteei laguntzeko neurriak sustatzea.



## 2. ildo estrategikoa.

# KULTURARAKO ESKUBIDEA LURRALDETIK

Biztanleak sakabanatua eta Gasteizen zentralizatuta dituen Arabako eremu zabalean Lurralde Historiko osoko herritarrek kultura modu berean sortzeko eta gozatzeko eskubidea dute. Eskubide horrekin bat etorrituz, erakundeek, eta bereziki udalerriek eta kuadrillek, beren lurraldeetan kultura politikak ezartzeko eginkizuna dute. Herri txikiak izanik, AFAK, foru erakunde gisa, bere jardun eremu osoan kulturarako irisgarritasuna orekatzeko azken erantzukizuna du.

### Helburu estrategikoa:


Kultura lurraldearen ardatz estrategiko egituratzaile bihurtzea, lurralde historikoaren barruan eta kanpoan kohesioa eta lurralde proiektzioa bilatuz, Arabako kultura nortasuna indartuz eta pertsonen bizi kalitateari lagunduz.

### Jarduerak:

- 2.1. AFAko talde teknikoaren eta udalerriri eta kuadrilletako talde teknikoaren arteko lurralde koordinaziorako mahai iraunkorra indartzea, erregulartasuna, hausnarketarako eta eztabaidarako espazioa, udalerriaren arteko lankidetzarako gunea, aholkularitza teknikoa eta laguntza ekonomikoak, harremanetan, etab. ziurtatuz. Topaketa bateratu eta zentralizatuak bermatu beharko lirateke (ez nahitaez Gasteizen), foru taldeek udalerriri bakoitzean egingo dituzten zuzeneko topaketak eta guzti.
- 2.2. Erakundearen arteko lankidetzaren sustatzea, Arabako artxiboei eta dokumentu ondareari buruzko esperientziak eta ezagutzak trukatzeko, eta foru, kuadrilla eta udal talde teknikoek parte hartzeko.
- 2.3. Udalerriri eta kuadrilletako kultura planak sustatzea, babestea eta horietan parte hartzea, haien kultura politikak, posizionamendu kontzeptuala, lehentasunak, lan ildoak, proiektu nagusiak eta abar islatzeko.

- 2.4. Lurraldeko kulturako teknikarien egoera aztertzea: titulazio taldea, beste arlo batzuekin partekatutako dedikazioa, etab.
- 2.5. Dirulaguntzen programa egonkorra eta erregularra mantentzea eta udalerrien eta kuadrillen beharretara egokitzea, kultura programazioaren arabera.
- 2.6. Laguntzen deialdia egiteko prozedura sinplifikatzea, izapideetarako, formularioetarako, oinarrietarako, epeetarako, prozesu osoa jakinarazteko irizpideetarako, etab.
- 2.7. Laguntzak kudeatzeko zailtasun handienak dituzten eragileei laguntza eta aholkularitza eskaintzea.
- 2.8. Herrien arteko mugikortasuna erraztuko duten formulak bilatzea, inguruko herrietako kultura bizitzan parte hartzeko.
- 2.9. Uda garaitik kanpoko programazioa bultzatzea, urte osoan kultura eskaintza egonkorra eta etengabea bermatzeko.
- 2.10. Dauden kultura programak indartzea.
- 2.11. Kultura programazioaren deszentralizazioa indartzea.
- 2.12. Arte publikoari balioa emateko proiektu bat egitea kaleetan, plazaetan, biribilguneetan eta aire zabaleko beste espazio batzuetan, mekanismo digitalen bidez, baina baita adierazpen plafoi, azalpen plafoi eta ibilbide autogidatuen bidez.
- 2.13. Zientzia eta teknika dibulgazioa, filosofia eta pentsamendua sartzeara edo sustatzea, bai eta beste ezagutza arlo batzuk ere, programa kulturalen bidez, erronka garaikideetan kezka dituen publiko zorrotzago batentzat (krisi klimatikoa, oreka geoestrategikoak, gerraren inpaktua, plataforma teknologikoak edo prozesu ekonomikoak, batzuk bakarrik aipatzearren).
- 2.14. Arabako Lurralde Historikoko kultura ekipamenduen mapa egitea, dauden kultura ekipamenduen (antzokiak, auditorioak, museoak, liburutegiak, arte zentroak, kultura etxeak, etab.) kalitatea, erabilerrak, irisgarritasun unibertsala eta erosotasuna aztertzeko.
- 2.15. Kultura ekipamenduen mapa hori zabaltzea, sektorean horren ezagutza eta erabilera sustatzeko.

- 2.16. Arabako Lurralde Historikoko ondare aktiboen mapa egitea eta zabaltzea, ezagutua izan dadin.
- 2.17. Arabako ondare elementuak berreskuratzea eta egokitzea, haien eskuragarritasuna, hedapena eta kultura erabilera sustatzeko.
- 2.18. Lurraldeko artistekin erakusketa zirkuituak sor daitezten bultzatzea, udalerrietan gutxieneko erakusketak erregularitasunez egin daitezten.
- 2.19. Egile zinemaren zikloak zabaltzen laguntzea, Euskadin ekoiztako eta lurraldera iristen den zinemari begirada berezia emanez, Vitoria-Gasteizetik haratago, bertan Artium bezalako erakundeek dagoeneko programatzen baitute.
- 2.20. ALHren landa eremuaren ezaugarri den biztanleria dentsitate txiki-  
ra egokitzen diren azpiegitura mugikorrek sortzea.
- 2.21. Zerbitzua lurralde osora zabaltzeko formulak aztertzea, batez ere udal liburutegirik ez duten 5.000 biztanletik beherako herrietara.
- 2.22. Kultura erakundeekin, bereziki liburutegiekin, lankidetzan proiektuetan parte hartzea sustatzea.



### 3. ildo estrategikoa.

## SORTZEKO ESKUBIDEA

Kulturaren zati handi bat arteetan oinarritzen da, eta horiek existitzen dira sorkuntza artistikoa dagoelako. Erakundeek edozein esparrutan sormen prozesuak garatzen dituzten pertsoneri lagundu behar diete. Horietako batzuetan, sormen ekintza oso indibiduala izaten da, eta baliabide gutxirekin praktikutzen da. Beste batzuetan, giza taldeak eta azpiegituretakoinbertsioak behar ditu.

#### Helburu estrategikoa:

Sorkuntza artistikoa bultzatzea, bai maila profesionalean, bai amateurrean, Arabako Lurralde Historikoan dagoen talentua eta sormen ahalmena erakutsiz.

#### Jarduerak:

- 3.1. Kulturaraba Bulegoa programa indartzea eta zabaltzea, kultura sektorea bultzatzeko neurri gisa, batez ere hasierako fasean dauden eragile eta proiektuena.
- 3.2. Jaialdi, maratoi edo ikuskizun gurgil formatuko sustapen espazioak sortzea, artista taldeek sortutako lanen zati bat programatzaileari eta publiko zabalari erakusteko.
- 3.3. Sorkuntzarako laguntza egonkorak prestatzea, unean uneko babesetik haratago doazenak, eta espazioak, prestakuntza, bekak, kontaktuak, kontratazioa, nazioartekotzea eta abar eskaintzea, prozesu osagarrian.
- 3.4. Kultura proposamenen eta natura ingurunearen arteko harremana indartzea (esku hartze plastikoak, kontzertuak eta dantza naturan, etab.).
- 3.5. Kultura eragileen direktorio digitala inplementatzea KulturArabaren webgunean, katalogo gisa, bistaratzen, harremanetan jartzen eta kontratatzen laguntzeko.

- 3.6. Sorkuntza eta saiakuntza zentro, gune edo lantegien sarea sortzen laguntzea, lurraldean dauden ekipamenduak multzokatuz.
- 3.7. Sorkuntza gune, zentro edo lantegi horietan egoitza artistikoen programa bat sortzen laguntzea, artistak banaka hartzeko, bai talde edo konpainia egonkorretan, baldin eta proposamen artistiko bat sortzeko eta ekoizteko espazioak, bitartekoak eta baldintzak behar badituzte. Espazioen eta sorkuntza eragileen arteko akordioak hitzarmenetan finkatuko dira, eta kontraprestazioak jasoko dituzte, sortutako obra jendaurrean aurkezteko moduan, tailerretan edo egokitzen jotzen diren beste batzuetan.
- 3.8. Beren kasa edo espazio zabalagoen barruan (kultura etxeak, museoak, etab.) erakusketa espazioak sortzea edo egokitzea bultzatzea.
- 3.9. Diseinua enpresa kulturaren parte izan dadin sustatzea, erakusketak, argitalpenak, tailerrak, hitzaldiak eta abar eginez.
- 3.10. Diseinu grafikoa kultura bizitzan sartzea: komunikazioa, espazioak, argitalpenak, etab.
- 3.11. Liburu eta irakurketa kateko eragile guztien arteko lankidetzak bultzatzea: sorkuntza, argialetxeak, liburu dendak, liburutegiak...
- 3.12. Dauden argialetxeei laguntza eta ikusgarritasuna ematea, eta, ahal den neurrian, argitalpen proiektu berriak abian jartzen laguntzea.



## 4. ildo estrategikoa.

# MEMORIARAKO ESKUBIDEA

Gizarte bat bere buruaren oroimenaren gainean eraikitzen da, eta horrek aukera ematen dio nor den izateko eta izan nahi duen horretan aurrera egiteko. Oroimenak komunitate garen aldetik batzen, identifikatzen eta indartzen gaitu. Oroimena historian, ondarean eta tradizioetan oinarrituta eraikitzen da, baina baita etengabeko aldaketetan eta etengabe bizi garen mutazioetan oinarrituta ere. Oroimena bizirik dago, aldakorra da, egunero aberasten da. Gaur egiten duguna biharko memoria da. Eta erakundeek memoria identifikatzeko, galdutakoan berreskuratzeko, ezagutzeko aztertzeke, komunitatearekin partekatzeko, kanpora erakusteko eta etorkizunera proiektatzeko erantzukizuna dute. Horrela, ondareari lotutako foru zerbitzuak diren bezala ikusi behar dira: eragile erabat kulturalak, beren funtzio administratibotik haratago.

### Helburu estrategikoa:

Arabako kultura ondarearen gozamena eta ezagutza sustatzea, ondare hori osatzen duten funtsak gizartearen zerbitzura jarriz, ondasunen kontserbazioa eta zaharberritzea, ikerketa, erakusketa eta emaitzen zabal-kundea modu iraunkorrean kudeatuz, ezagutza eta esperientzia egokiak sortuz.

### Jarduerak:

#### 4.1. Ondarea zabaltzea eta balioestea

- 4.1.1. Arabako ondare arkeologiko eta paleontologikoa osatzen duten ondasunen seinaletika hobetzea.
- 4.1.2. Ezagutza zabaltzea argitalpen espezializatuen eta dibulga-zioen bidez, eta kontserbazio eta zaharberritze arloko jardunbide egokiak argitaratzea.
- 4.1.3. Gastronomiaren eta kulturaren arteko lotura sendotzea, to-kian tokiko produktua zabalduko duten azokak sustatuz.
- 4.1.4. Inpaktu artistikoko ekintzak antolatzea (erakusketak, antzerki eta dantza ikuskizunak, etab.), Arabako artxibo historikoak eta horien edukia gehiago ezagutarazteko.

- 4.1.5. Arabako historia eta memoria demokratikoa ezagutzen dela bermatzea, zabalkunde eta hedapen ekintza orokorren eta doakoen bidez.
- 4.1.6. Foru kudeaketako ondare kontserbaziorako zentroetan (artxi-boak, liburutegiak eta museoak) arreta handitzea, esleituta duten zerbitzua emateko behar beste baliabide erabiliz, herritar guztiak haietara libreki eta doan sar daitezen erraztuz.
- 4.1.7. Prestakuntza proposamen gisa sartzea zaharberritze zerbitzura bisita gidatuak egitea, zaharberritzen ari diren piezak eta obrak “in situ” ikusteko eta lan prozesuak eta metodologiak ikusteko, gure kultura ondarea zaintzeko eta balioesteko beharraz kontzientziatzeko modu gisa.
- 4.1.8. Foru museoetako jarduera didaktikoen programekin jarraitzea eta horiek indartzea, familientzako, eskola taldeentzako eta, oro har, hezkuntza arloko bisitaldi gidatuen eta tailerren eskaintzarekin.
- 4.1.9. Komunikazio plan bat ezartzea.

## **4.2. Ondarea kontserbatzea eta zaharberritzea**

- 4.2.1. Euskal kirol tradizionaletarako azpiegiturak kontserbatzea eta balioan jartzea, hala nola frontoiak.
- 4.2.2. Arabako dokumentu ondarearen kontserbazioa bermatzea, ondare hori gal edo honda ez dadin.
- 4.2.3. Arabako monumentu eta aztarnategi arkeologiko bisitagarriak kontserbatzeko eta mantentzeko lanak indartzea, landa eremuetan turismoa sustatzeko eta Arabako lurraldea ezagutzeko.
- 4.2.4. Foru jabetzako ondasun higigarri artistikoak eta arkeologikoak biltegitartzeko eta kudeatzeko espazioak hobetzea.



- 4.2.5. Toki erakundeei eta partikularrei zuzendutako ondasun historiko arkitektonikoen zaharberritzea sustatzea.
- 4.2.6. Kultura ondarea kontserbatzeko zuzeneko esku hartzeak kudeatzea.

### **4.3. Ondarearen ikerketa, dokumentazioa eta katalogazioa**

- 4.3.1. Arabako folkloreko eta herri tradizioko elementuak berreskuratzen laguntzea.
- 4.3.2. Araban ahozko memoria zaintzeko ekintzak eta proiektuak babestea.
- 4.3.3. Arabako Lurralde Historikoko ondare historiko arkitektonikoaren ikerketa eta dokumentazio proiektuak egitea.

### **4.4. Plangintza eta kontrola**

- 4.4.1. Euskal Kultura Ondarearen Legea kontrolatzea eta betetzea.
- 4.4.2. Arabako Monumentu Multzo eta Hirigune Historikoetako Udal Antolamenduko Plangintza Orokorra eta Birgaitze Integratuko Planak berrikustea eta aldatzea, bai eta ingurumen inpaktua ebaluatzeko espedienteak, lurralde antolamendua eta gainerako legeria sektoriala ere.
- 4.4.3. Memoriaren eta ondarearen sektoreari buruzko plan espezifiko bat egitea, Arabako Kulturaren Foroan eta beste gune eta ekarpen profesional eta herritar batzuetan egindako ekarpenak zehatz-mehatz jasotzeko.

### **4.5. Finantzaketa**

- 4.5.1. Arabako tradizioari, folkloreari eta ondare immaterialei lotutako kultura baliabideak kudeatzen dituzten erakunde eta museoekin (Artziniegako eta Zalduondoko museoak, besteak beste) finantzazio eta lankidetzak programak jarraitzea eta indartzea.
- 4.5.2. Kontserbatzeko eta zaharberritzeko laguntzen deialdiak aztertzea.



## 5. ildo estrategikoa.

# PARTE HARTZEKO ESKUBIDEA

Gaur egungo gobernantza eredu guztiek herritarren parte hartzea komunitatearen bizitzan pertsonak eta kolektiboak ahalduntzeko mekanismo gisa hartzen dute. Inplikazio mugimendu horiek herritarren eskubidetzat hartzen dira jada, eta ez boterearen kontzesio soiltzat. Gainera, egiaztatuta dago herritarrak beren inguruko dinamika sozial eta kulturalan inplikatzeko direnean, onura bikoitza sortzen dela: pertsonak inguruan dutenarekiko askoz erantzuelago sentitzen dira, eta gizarte osoak eguneroko bizitza hobetzen du. Kultura sektorearen kasuan, hori bi aldiz garrantzitsua da, oso sektore dinamikoa eta ingurunearekin konprometitua delako.

### Helburu estrategikoa:

Herritarren parte hartzea sustatzea kultura politiken eraketan, ikuspegi desberdinen ekarpena bultzatuz eta herritarren eta sektoreko eragileen inplikazioa sustatuz politika horien ezarpenean.

### Jarduerak:

- 5.1. Arabako Kulturaren Batzordea sortzea, hausnarketarako, eztabaidarako, elkarrizketarako eta ekintzarako gune gisa, kultura sektoreko erakundeak, enpresak eta elkarteak ordezkaturik. Ziurtatu behar da parte hartzeko espazio horiek eraginkorrak direla eta ilusioa, ideiak, elkarreragina eta jarduera zehatzak sortzen dituztela. Eremu sektorial gisa, lehen aipatutako lurralde koordinazioko mahai iraunkorrenekin osatzen da.
- 5.2. Arabako Kultura Batzordearen esparruan partaidetza guneak sor daitezen bultzatzea. Mahai iraunkorrak, sektorialak edo eremukakoak, eztabaida eta ekintza mahai horietako bakoitzean zentratuko dutenak.
- 5.3. Gazteek Arabako Kultura Batzordean parte har dezaten sustatzea, kultura politikei gazteekin eta gazteengandik (eta ez soilik “gazteentzat”) ekin ahal izateko.

- 5.4. Kulturaren zeharkako gaiak lantzeko lan espazioak sortzea, hala nola hezkuntza, gazteria, berdintasuna, generoa, euskara edo turismoa, besteak beste.
- 5.5. Arabako Kulturaren Foroa antolatzea, ezartzen den aldizkakotasunarekin, kultura sektorearen topagune eta gogoetarako, eztabaidarako, harremanetarako, elkartrukerako eta prestakuntzarako gune gisa.
- 5.6. Lurralde eta sektore taldeak inplikatzea Arabako Kultura Planaren ezarpenean, jarraipenean eta ebaluazioan.
- 5.7. Arabako Artxiboaren erabiltzaileek zabalkunde jardueran parte hartzen sustatzea, kultura elkartean eta boluntarioritza ekintzen bidez.

## 6. ildo estrategikoa.

# HIZKUNTZA ESKUBIDEAK

Kultura, ia beste ezin sektorek ez bezala, irakas hizkuntzak definitzen du hein handi batean. Gizarte garaikideak kultura anitzekoak eta eleanitzak dira, eta botere publikoek, beren kultura politiken eta beste politika batzuen bidez, bermatu egin behar dute herritarrek herrialdeko berezko hizkuntzan bizitzeko duten eskubidea. Horrela, euskarak komunitatearen kultura bizitzaren esparru guztietan egon behar du presente, hala nola arteen sorkuntza, prestakuntza eta hedapenerako espazioetan, ondarean, kultura tradizional eta herrikoian eta bestelakoetan. Baina parte hartzeko guneen, komunikazioaren, argitalpenen eta abarren hizkuntza ere izan behar du.

### Helburu estrategikoa:

Arabako Lurralde Historikoko kultura bizitza bere alderdi guztietan euskaraz garatzen dela bermatzea eta sustatzea, kultura ekintzaren garapen osoan (prestakuntza, sorkuntza, ekoizpena, komunikazioa, hedapena, parte hartzea, plangintza, kudeaketa eta ebaluazioa) haren presentzia eta erabilera bultzatuz.

### Jarduerak:

- 6.1. Plan honetan hartutako neurriak beti euskaraz adierazten direla zeharka ziurtatzea: parte hartzeko, prestakuntzarako, koordinaziorako, programaziorako, hedapenerako, komunikaziorako eta abarretarako espazioak.
- 6.2. Kultura eragileen artean euskararen erabilera sustatzea.
- 6.3. Mota guztietako kultura programazioetan euskararen presentzia sustatzea eta bermatzea.
- 6.4. Euskaraz egiten diren jardueretarako (musika, antzerkia, irakurketa, zinema, bertsolaritza, etab.) publiko berrien sorrera sustatzea.
- 6.5. Dirulaguntzen prozeduretan, hitzarmenetan eta AFaren babes eta publizitate kontratuetan aplikatutako hizkuntza irizpideak aztertzea eta proposatzea.

- 6.6. Lurraldeko euskararen arloan dauden planekiko lankidetzaz eta koordinazioa sendotzea.
- 6.7. Euskarazko edukien kopurua handitzea Arabako dokumentu ondare hedatzeko eta zabaltzeko atarietan (Photo Araba eta Arabadok) eta GeoArabakoetan.
- 6.8. Liburutegiko bibliografia funtsak eguneratzea.
- 6.9. Argitalpenak, irakurketa gidak, nobedadeen buletinak, bibliografia selektiboak eta interesguneak egitea, paperean zein formatu elektronikoan.
- 6.10. Antolatutako euskarazko jardueren kopurua handitzea, hala nola hitzaldiak, eztabaidak, topaketak, liburuen aurkezpenak, publiko orokorarentzako eta berariazko publikoarentzako (haur/familientzako, etab.) zinema zikloak.





## 7. ildo estrategikoa. ESKUBIDE DIGITALAK

Kultura, bere proposamen artistiko, ondare eta kultura tradizional eta herrikoietan “artisans” izaera sendoa mantentzen duen sektorea da: antzerki edo dantza lanak, arte bisualen edo ondarearen erakusketak, era guztietako tailer artistikoak edo irakurketa klubak, aurrez aurrekoa funtsezkoa den kasu batzuk aipatzearen. Baina teknologia eta digitalizazioa gero eta gehiago sartzen dira sormen prozesuetan, hedapenean, komunikazioan edo parte hartzean. Beraz, arrisku handia dago hizkuntza digital horiek menderatzen dituzten publikoen eta ez dituztenen artean arrakala digitala sortzeko eta handitzeko. Politika publiko baten funtzioa haustura hori saihestea, murriztea eta ezabatzea da.


### Helburu estrategikoa:

Arabako herritarrek eta kultura sektoreak beren jardueraren garapenean tresna eta eduki digitalak menderatzea eta erabiltzea sustatzea, Arabako pertsonen eta kultura erakundeen arteko arrakala murriztuz joan dela ziurtatuz.

### Jarduerak:

- 7.1. Artistentzako, AFAko teknikarientzako, udalerrietako langileentzako, kuadrilletako langileentzako eta elkarteetako langileentzako prestakuntza prozesu bat garatzea, teknologia digitalaren erabilerran sakontzeko, bai sormenari dagokionez, bai kudeaketari eta komunikazioari dagokionez.
- 7.2. Tresna teknologikoak aplikatzea udalerrietako jardueren emaitzen bilketa sistematikoan, ondoren aztertzeko eta txostenak prestatzeko eta Arabako kultura bizitzaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko.
- 7.3. Udalerrien komunikazio mekanismoak indartzea, tresna digitalak erabiliz.
- 7.4. ALHtik sortutako edukiak eta hizkuntza digitala edo transmedia duten proiektuak babestea.

- 7.5. AFaren argazki eta dokumentu funtsa bilduko duen gordailu digital kultural bat sortzea, beste biltegi batzuen eskura jartzeko (hala nola Euskariana, Hispania eta Europeana) eta, beraz, herritarren eskura.
- 7.6. Arabako Lurralde Historikoko ondare historiko arkitektonikoaren informazio sistemak eta funtsak eguneratzea.
- 7.7. Zaharberitutako ondarea baliabide digital berrien bidez zabaltzea. Teknologia digitalak lagungarri dira gure ondareko elementuak kon-tserbatzeko, dokumentatzeko, monitorizatzeko eta zabaltzeko.
- 7.8. Foru museoak osatzen dituzten bildumen zabalkunde eta kudeake-ta prozesuetan eta Arabako arkeologia eta paleontologia ondarea osatzen duten kultura ondasunetan teknologia berrien eta digitali-zazioaren erabilera erraztea.
- 7.9. Eguneratuta edukitzea informazio kanal digitalak, araba.eus inguruko webgu-neak, sare sozialak, banake-ta zerrendak...



## 8. ildo estrategikoa. LAN DUINA IZATEKO ESKUBIDEA



Kultura sektoreak, askotan, errekonozimendu gutxiko lan baldintzak izan ditu, prekarioak eta oso aldizkakoak. Eta hori bai alderdi artistikoan, bai alderdi teknikoan eta kudeatzailean. Kultura politika batek bermatu behar du sektoreko pertsona guztiek baldintza duinetan lan egiteko eskubidea dutela. Hori proiektu baten bizi ziklo osoan gauzatzen da. Eta horretan, eragile guztiek konpromisoa hartzen dute beren zatia betetzeko.

### Helburu estrategikoa:

Profesionalentzako eta erakundeentzako lan baldintza duinak sustatzea (dedikazioa, bateragarritasuna, soldatak, mailaz igotzea, etab.), eragile publikoen eta pribatuen eskubideak parekatzeko, kulturaren sektoreen eta lurraldeen artean.

### Jarduerak:

- 8.1. Lizitazioak, deialdiak, hautaketa prozesuak, enkarguak, kontratuak, jarraipenak, ordainketak, balorazioak eta ebaluazioak modu irekian, gardenean eta profesionalean formulatzean indarrean dagoen lan legeria betetzen dela ziurtatzea.
- 8.2. Era guztietako akordioetan, sormen lana aintzat hartzea, eta denboretan eta kostuetan eragitea.
- 8.3. Kultura proiektu eta ekintzetarako kontratatutako teknikarien eta kudeatzaileen lan eskubideak aitortzea, exijitzea eta duintzea.
- 8.4. Kultura sektoreetako profesionalen elkarrekin koordinatuta lan egitea.
- 8.5. Artistaren Estatutuaren garapenean eta ezarpenean aurrera egitea.



# 9. ildo estrategikoa.

## ANTOLAKETA

## ERAGINKORRA IZATEKO

## ESKUBIDEA

Sozietate gisa, administrazio publiko eraginkorra eskatzeko eta erabiltzeko eskubidea dago, eta horrek eragina du haren funtzionamenduan eta emaitzetan. Horrek baliabideak aurreztea eta inpaktuak biderkatzea dakar. Kultura sektoreak, bereziki, mekanismo arinagoak eta malguagoak behar ditu, eta mekanismo horiek ez datoz bat beste zerbitzu batzuekin, askoz ere estandarizatuagoak, egonkorragoak eta iraunkorragoak baitira.

### Helburu estrategikoa:

Arabako herritarrek beren planteamenduetan, lan metodoetan, baliabideen erabileran, publikoen tratamenduan, ekintzen garapenean eta abarretan erakunde publiko, pribatu eta asoziatibo eraginkorrak dituztela ziurtatzea.

### Jarduerak:

- 9.1. AFaren barruan kulturak duen garrantzia azpimarratzea, diskurtsoetan, aurrekontuetan, organigrama teknikoan eta abarretan parte hartuz.
- 9.2. Sektore berean, publiko berberetan edo lurralde berean eragina duten administrazio publikoen arteko zeharkako lana eta lankidetzakoa nabarmen hobetzea. Erakunde horietako taldeek eskumener banaketan oinarrituta lan egin behar badute ere, proiektu partekatuetako lankidetzak sektorearen eta lurraldearen gaineko emaitzak indartzen ditu. Arabako Foru Aldundiak HAKOBA erakundearen arteko koordinazio batzordean eta Kulturaren Euskal Kontseiluan duen partaidetza sakontzea, gai interesgarriak azalduz eta Arabako kultura eta sormen sektorea defendatuz.
- 9.3. AFAko sailen arteko zeharkako lana sakontzea, betiere haien planen eta politiken koordinazioan, talde profesionalen lankidetzan eta haien ekintza proiektu batzuen baterako aplikazioan oinarrituta.

Bereziki kontuan hartzea hezkuntza, gazteria, gizarte ekintza, berdintasuna, turismoa, ekonomia, etab.

- 9.4. Kultura Zuzendaritzako zerbitzuen arteko zeharkako eta lankidetzazko lana sakontzea.
- 9.5. Aldian behin (urtero / bi urtetik behin) Kultura Sailaren zeharkako kultura proiektu bat egitea, zerbitzu guztiak barne hartzen dituen eta lankidetzazko lana dakarrena. Efemeridea, mendeurrena, urte bereziren bat eta antzekoak aprobeitza daitezke.
- 9.6. Herri administrazioek (AFA, udalerrak eta kuadrillak) kanpoko kultura zerbitzuak kontratatzen laguntzea, tokiko mikroenpresak Arabako kultura bizitzan ekintzailatza, konpromisoa eta inplikazioa bultzatzeko aukera gisa ikusita, eta ez kanporatutako kultura zerbitzuetako eta jardueretako langileen lan baldintzak aurrezteko eta prekarizatzeko bide gisa.
- 9.7. Kontratazio publikoaren ereduak (lizitazioak) berrikustea, jardunbide hobeak sustatzen dituzten ereduak (lehendik daudenak) txertatzearen alde.
- 9.8. AFAko dokumentazioaren kudeaketa integrala eta e-Administrazioa bultzatzea eta hedatzea, AFAREN eta kulturaren sektoreko eta lurraldeko kultura eragileen arteko harremana zehazten duten prozedurak, izapideak eta kudeaketak sinplifikatzeko eta arintzeko. Hori bereziki aplikatzen zaie laguntzei eta dirulaguntzei, kontratuei, ordaintzei eta harremanetarako beste edozein espaziori.
- 9.9. Kargu politikoei, talde teknikoei, kudeatzaile pribatuei eta elkartee-tako kideei irekitako prestakuntza programak sortzea, politikak formulatzeko, proiektuak diseinatzeko eta kudeatzeko, mezenasgoko eta babesletzako eragiketarako komunikatzeko, lortzeko eta ondoren kudeatzeko gaitasunak eta trebetasunak hobetzeko, eta abar.
- 9.10. Kudeaketa gai teknikoei buruzko prestakuntza material instrumentalak argitaratzea: komunikazioa, kontratazioa, kanpo finantzaketa bilatzea, etab.
- 9.11. Plangintza estrategikoaren eta operatiboaren prozeduretan eta tresnetan sakontzea, betiere plan orokorrak eta sektorialak egitea, proiektuak diseinatzeko, memoriak egitea eta gisakoak ziurtatzeko.

- 9.12. AFAn aplikatzea, eta udalerrietan kultura ekintza ingurumenaren aldetik iraunkorragoa egingo duten neurriak planifikatzea eta ezartzea (energia eraginkortasuna, kontsumoa aurrezte, hondakinak murriztea, birziklapena areagotzea, elikagaien xahutzea murriztea, etab.).
- 9.13. Kultura eskaintzaren komunikazioan erabilitako edukiak, kanalak eta hizkuntzak berrikustea, eta komunikazio plan bat ezartzea.
- 9.14. AFaren Mezenasgoari buruzko Foru Arauaren informazioa eta komunikazioa hobetzea sektoreari, herritarrei eta, batez ere, enpresa pribatuari ematen zaiena.
- 9.15. Kulturaren eta sormenaren sektorean mezenas edo babesle gisa jardun nahi duten enpresa eta pertsonekin konektatzeko formulak bilatzea, kultura sektoreari funts ekonomikoen eta bestelako baliabide pribatuen ekarpena sustatuz (materialak edo espezieetan egindako ekarpenak, espazioen lagapena, lankidetzak, aholkularitza, ezagutza, kontratazioa, laguntzak, sarien zuzkidura, etab.).
- 9.16. Europako programak eta nazioarteko sareak eskuratu nahi dituzten Arabako proiektuak prestatzea eta kofinantzatzea.
- 9.17. Kultura plan berria dibulgaziozko bertsio batean editatzea eta kultura eragileen eta publikoen artean zabaltzea, modu gardenean erakusteko kultura ekintza, bere egunerokoan, bat datorrela nora iritsi nahi den adierazten duen epe luzeko begiradarekin.
- 9.18. Kultura erakundeekin, bereziki liburutegiekin, lankidetzak proiektuetan parte hartzea.
- 9.19. Elizbarrutiaren erlijio ondare higigarrian jardutea, batzorde mistoaren hitzarmenaren bitartez.
- 9.20. Arabako kultura ondarea kontserbatzearekin eta zaharberritzearekin zerikusia duen guztian aholkularitza teknikoa eskaintzea.
- 9.21. Arabako foru administrazioak sortutako dokumentuak kudeatzeko sistema ezartzen jarraitzea, Artxibo eta Dokumentu Kudeaketa Zerbitzuaren bidez.

- 9.22. Beste erakunde eta organismo batzuekiko lankidetzari eustea: luza-tu egingo dira Ensanche 21 Zabalgunea SArekin eta Arabako lanbide elkargoekin sinatutako hitzarmenak. Lanean jarraituko da UNE normalizazioan (Irisgarritasuna ondare kultural higiezinan), Añanako Udalean (Next Generation EB funtsak kudeatzeko), Hispania Nostra sarietarako hautagaitza prestatzen, proposamenak hautatzeko prozeduretarako adituen batzordeetan, etab.
- 9.23. Arabako Foru Museoen eta ondare arkeologiko eta paleontologikoaren jarduera eremuetan lan egiten duten enpresa, profesional, erakunde, kolektibo eta elkarreentzako lankidetzak eta aholkularitza indartzea.
- 9.24. Herritarren beharrei erantzutea eta itzaropenak betetzea, erdigunean pertsonak jarritz.
- 9.25. Foru museoen, artxibategiaren eta kultura etxearen espazioak erakunde eta kolektiboekin lagatzen jarraitzea eta indartzea, kultura ekitaldiak antolatzeke.
- 9.26. Kultura eta Kirol Sailaren argitalpenak eraginkortasunez kudeatzea.



2023 - 2028  
KULTURA PLANA  
EZARTZEKO  
METODOLOGIA

Arabako Kultura Plana epe luzerako lan prozesu baten emaitza da.

Urtero, Kultura Zuzendaritzak ibilbide orri edo ekintza plan bat egingo du, ildo estrategiko bakoitzari dagozkion jarduerak zehazteko.

Urteko zehaztapena honako hauen arabera izango da: hartu beharreko neurrien lehentasun politiko eta tekniko arabera, herritarren eta sektoreen eskaeren arabera, aurrekontuaren arabera, AFAko beste zuzendaritza batzuekin izandako elkarrizketaren arabera, beste eragile batzuen jardueren arabera, eta, denbora igaro ahala, aurreko ibilbideen orriak betetzearen arabera eta AKPE urtero ebaluatzen duten lantaldeen proposamenen arabera.

IBILBIDE  
ORRIA  
2023-2024

# 1. ILDO ESTRATEGIKOA. KULTURA ESKURA IZATEKO ESKUBIDEA

Herritarrek kulturaren gainean duten eskubide nagusia da, eta uneoro, toki eta ekintza guztietan, garatzeko aukera egon behar da. Era guztietako erakundeek behar diren ekimenak jarri behar dituzte abian, betetzen direla bermatzeko. Hortik abiatuta zehazten dira beste eskubide kulturalak.

ILDO ESTRATEGIKOA	JARDUN EREMUA	JARDUERAK	KRONOGRAMA	
			2023	2024
<b>KULTURA ESKURA IZATEKO ESKUBIDEA</b>  XEDEA: Kultura lurraldearen ardatz estrategiko egituratzaile bihurtzea, lurralde historikoaren barruan eta kanpoan kohesioa eta lurralde proiektzioa bilatu nahian, Arabako kultura nortasuna indartzuz eta pertsonen bizi kalitateari lagunduz.	<b>Kulturarako irispiderako politikak</b>	Herritarren Eskubide Kulturaleri buruzko Foru Araua.		
		Publiko eta entzule berriak garatzea		
		Prestakuntza-zentroak sustatzea		
		ALHko sortzaileak eta kultura-eragileak sustatzea		
		Elkarte profesionaler laguntzea eta haiekin hitz egitea		
		Oso ohikoak ez diren espazioetan programatzea		
	<b>Kulturaz sentsibilizatzea</b>	Partikularren jabetzako kultura-ondarea zaintzeari buruz sentsibilizatzea.		
		Familia-programazioari arreta berezia eskaintzea		
		Irakurketa sustatzeko proposamen berritzaileak egitea		
		Liburu azokak egiten laguntzea		
		Kultura-ondareari buruzko jarduera didaktikoen programak garatzea eta indartzea		
	<b>Genero-berdintasuna</b>	Kultur eskaintza orekatua, zabal eta askotarikoa izan dadin sustatzea		
		Emakumeek egindako ezagutza, ikusgarritasuna, sorkuntza eta ekoizpena bultzatzea		
		Emakumeek sortutako, sustatutako edo protagonizatutako kultura-ondarea ikusaraztea		
		Sexuaren arabera bereizitako datuak biltzea		
		Genero-berdintasunaren irizpideei garrantzi handiagoa ematea diru-laguntzetan		
		Berezko programazioetan espazio seguruen mekanismoak aktibatzea		
		Jaietako jardueretan eraso sexistak saihesteko mekanismoak ezar daitezzen sustatzea		
		Funts bibliografikoak genero-irizpideekin eguneratzea eta ikusaraztea		
	<b>Kultura eta aniztasun sozial eta funtzionala</b>	Kultura-aniztasuna jasotzea programazioetan		
		Askotariko jatorri eta kulturetako kolektiboekin jardueren eskaintza mantentzea eta indartzea		
		Kultura-jardueretan dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako espazioak egokitu ditzaten sustatzea		
		Liburutegiek funts egokituak izan ditzaten sustatzea		
		Dibertsitate funtzionala duten pertsonen kolektiboekin jardueren eskaintza mantentzea eta indartzea		
		Talde teknikoak prestatzea dibertsitate funtzionala duen pertsona bati heltzen jakin dezaten		
		"Ikasgela+55" programa antolatzea eta garatzea		
	<b>Kultura eta gazteria</b>	Gazteen proposamenak babestea		
		Ikertzaile gazteei laguntzeko neurriak sustatzea		
		Unibertsitateko ikasleak prestatzeko neurriak sustatzea		
		Gazteentzako jarduera didaktikoen eskaintza mantentzea eta indartzea		
América aretoa artista gazteentzako erakusketa eta programa sortzaileekin lankidetzan aritzea				
Gazteentzako arreta berezia sustatzea				

## 2. ILDO ESTRATEGIKOA. KULTURARAKO ESKUBIDEA LURRALDETIK

Biztanleak sakabanatua eta Gasteizen zentralizatuta dituen Arabako eremu zabalean Lurralde Historiko osoko herritarrek kultura modu berean sortzeko eta gozatzeko eskubidea dute. Eskubide horrekin bat etorritik, erakundeek, eta bereziki udalerriek eta kuadrillek, beren lurraldeetan kultura politikak ezartzeko eginkizuna dute. Herri txikiak izanik, AFAk, foru erakundea den aldetik, bere jardun eremu osoan kulturarako irisgarritasuna orekatzeko erantzukizun nagusia du.

ILDO ESTRATEGIKOA	JARDUN EREMUA	JARDUERAK	KRONOGRAMA	
			2023	2024
<b>KULTURARAKO ESKUBIDEA LURRALDETIK</b>  XEDEA: Kultura lurraldearen ardatz estrategiko egituratzaile bihurtzea, lurralde historikoaren barruan eta kanpoan kohesioa eta lurralde proiektzioa bilatu nahian, Arabako kultura nortasuna indartuz eta pertsonen bizi kalitateari lagunduz.	<b>Azterketa, plangintza eta koordinazioa</b>	Lurralde-koordinaziorako mahai iraunkorra indartzea		
		Arabako artxiboei eta dokumentu-ondareari buruzko esperientziak eta ezagutzak trukatzea		
		Udalerrri eta kuadrilletako kultura-planak sustatzea, babestea eta horietan parte hartzea		
		Lurraldeko kultura teknikarien egoeraren azterketa		
		Liburutegi zerbitzua lurralde osora hedatzeko formulak aztertzea		
		Kultura erakundeekiko lankidetzak-proiektuetan parte hartzea sustatzea		
		ALHko kultura ekipamenduen mapa egitea		
	<b>Finantzaketa</b>	Diru-laguntzen programa mantentzea eta udalerrien eta kuadrillen beharretara egokitzea		
		Deialdien prozedurak sinplifikatzea		
		Eragileei laguntza eta aholkularitza eskaintzea		
	<b>Programazioa</b>	Kultur eskaintza egonkorra eta etengabea bermatzea urte osoan		
		Dauden kultura-programak indartzea eta deszentralizazioa indartzea		
		Dibulgazio zientifiko-teknikoa, filosofia eta pentsamendua txertatzea edo sustatzea		
		Foru museoei edo ondare-ondasunei lotutako kultur jarduerak sustatzea		

## 3. ILDO ESTRATEGIKOA. SORKUNTZARAKO ESKUBIDEA

Kulturaren zati handi bat arteetan oinarritzen da, eta horiek badira sorkuntza artistikoa dagoelako. Erakundeek edozein esparrutan sormen prozesuak garatzen dituzten pertsonen lagundu behar diete. Horietako batzuetan, sormen ekintza oso indibiduala izaten da, eta baliabide gutxiarekin praktikatzen da. Beste batzuetan, giza taldeak eta azpiegituretako inbertsioak behar ditu.

ILDO ESTRATEGIKOA	JARDUN EREMUA	JARDUERAK	KRONOGRAMA	
			2023	2024
<b>SORKUNTZARAKO ESKUBIDEA</b>  XEDEA: sorkuntza artistikoa sustatzea, dagoen talentua eta potentziala erakutsiz.		Kulturaraba Bulegoa programa indartzea eta zabaltzea		
		Kulturako proposamenen eta natura-ingurunearen arteko harremana indartzea		
		Sorkuntzarako laguntza egonkorra prestatzea, unean uneko laguntzatik harago.		
		Kultura-eragileen direktorioa digitala ezartzea Arabako Kulturaren webgunean		
		Balio-kateko eragile guztien arteko lankidetzak bultzatzea		

#### 4. ILDO ESTRATEGIKOA. MEMORIARAKO ESKUBIDEA

Gizartea bere buruaren oroimenaren gainean eraikitzen da, eta horrek aukera ematen dio nor den izateko eta izan nahi duen horretan aurrera egiteko. Oroimenak komunitate garen aldetik batzen, identifikatzen eta indartzen gaitu. Oroimena historian, ondarean eta tradizioetan oinarrituta eraikitzen da, baina baita etengabeko aldaketetan eta etengabe bizi garen mutazioetan oinarrituta ere. Oroimena bizirik dago, aldakorra da, egunero aberasten da. Gaur egiten duguna biharko memoria da. Eta erakundeek memoria identifikatzeko, galdutakoan berreskuratzeko, ezagutzeko aztertze, komunitatearekin partekatzeko, kanpora erakusteko eta etorkizunera proiektatzeko erantzukizuna dute. Hala, ondarearekin lotutako foru zerbitzuak eragile erabat kulturaltzat hartu behar dira, beren eginkizun administratibotik askoz haratago.

ILDO ESTRATEGIKOA	JARDUN EREMUA	JARDUERAK	KRONOGRAMA	
			2023	2024
<b>MEMORIARAKO ESKUBIDEA</b>  XEDEA: Arabako kultura-ondarea osatzen duten funtsak gizartearen zerbitzura jartzea, modu jasangarrian kudeatuta ondasunen kontserbazioa eta zaharberritzea, emaitzak ikertzea, erakustea eta zabaltzea, Arabako kultura-ondareaz gozatzeko ezagutza eta esperientziak sortuta.	<b>Ondarea ezagutaraztea eta balioestea</b>	Komunikazio plana ezartzea.		
		Ondarearen seinaletika hobetzea		
		Ezagutzaren zabalkundea: kontserbazioaren eta zaharberritzearen arloko argitalpen espezializatuak eta jardunbide egokiak		
		Gastronomiaren eta kultura-ondarearen arteko lotura indartzea		
		Artxiboan inpaktu artistikoko jarduerak programatzea		
		Ondarea kontserbatzeko zentroetan arreta zabaltzea (artxiboak, museoak eta liburutegiak)		
		Bisita gidatuak Zaharberrikuntza Zerbitzura		
		Foru museoetan jardura didaktikoen programak jarraitzea eta indartzea		
	<b>Ondarea kontserbatzea eta zaharberritzea</b>	Euskal kirol tradizioanetarako azpiegiturak kontserbatzea eta balioestea		
		Arabako dokumentu-ondarearen kontserbazioa bermatzea		
		Monumentu eta aztarnategi arkeologikoak kontserbatzeko eta mantentzeko lanak indartzea		
		Ondasun higigarri artistikoak eta arkeologikoak biltegitartzeko eta kudeatzeko espazioak hobetzea		
		Erakundeen eta partikularren artean ondasun historiko-arkitektonikoen zaharberritzea sustatzea		
		Kultura-ondarea kontserbatzeko esku-hartze zuzenak kudeatzea		
	<b>Ondarea ikertzea, dokumentatzea eta katalogatzea</b>	Arabako folkloreko eta herri tradizioko elementuak berreskuratzen laguntzea		
		Arabako ahozko memoria zaintzeko ekintzak eta proiektuak babestea		
		Ikerketa-proiektuak sustatzea		
	<b>Plangintza eta kontrola</b>	Euskal Kultura Ondarearen Legea kontrolatzen eta betetzen dela bermatzea		
		Antolamendu-plangintza eta birgaitze-planak berrikustea eta aldatzea		
		Memoriaren eta ondarearen sektoreko plan espezifikoko bat egitea		
	<b>Finantzaketa</b>	Finantzaketa eta entitateetarako lankidetzeta-programak sustatzea eta indartzea		
		Kontserbatzeko eta zaharberritzeko laguntzen deialdiak aztertzea		

## 5. ILDO ESTRATEGIKOA. PARTE HARTZEKO ESKUBIDEA

Gaur egungo gobernantza eredu guztiek herritarren parte hartzea komunitatearen bizitzan pertsonak eta kolektiboak ahalduzko mekanismo gisa hartzen dute. Inplikazio mugimendu horiek herritarren eskubidetzat hartzen dira jada, eta ez boterearen kontzesio soiltzat. Gainera, egiaztatuta dago herritarrek beren inguruko dinamika sozial eta kulturaletan inplikatzeko direnean, onura bikoitza sortzen dela: pertsonak inguruan dutenarekiko askoz erantzuleago sentitzen dira, eta gizarte osoak eguneroko bizitza hobetzen du. Kultura sektorearen kasuan, hori bi aldiz garrantzitsua da, oso sektore dinamikoa eta ingurunearekin konprometitua delako.

ILDO ESTRATEGIKOA	JARDUN EREMUA	JARDUERAK	KRONOGRAMA	
			2023	2024
<b>PARTE HARTZEKO ESKUBIDEA</b>  XEDEA: herritarren parte-hartzea sustatzea kulturako politiken eraketan, ikuspegi desberdinak eta inplikazioa bultzatuta.	<b>Arabako Kultura Batzordea</b>	Arabako Kultura Batzordea sortzea		
		Parte hartzeko guneen sorrera bultzatzea		
		Mahai iraukerak sektorialak edo arlokoak sortzea		
		Gazteen parte-hartzea sustatzea		
		Kulturarekiko zeharkako gaiak lantzeko lan-espazioak sortzea		
		Lurralde eta sektore taldeak Arabako Kultura Planean inplikatzeko		

## 6. ILDO ESTRATEGIKOA. HIZKUNTZA ESKUBIDEAK

Kultura, ia beste ezein sektorek ez bezala, irakas hizkuntzak definitzen du hein handi batean. Gizarte garaikideak kultura anitzekoak eta eleanitzak dira, eta botere publikoek, beren kultura politiken eta beste politika batzuen bidez, bermatu egin behar dute herritarrek herrialdeko berezko hizkuntzan bizitzeko duten eskubidea. Horrela, euskarak komunitatearen kultura bizitzaren esparru guztietan egon behar du presente, hala nola arteen sorkuntza, prestakuntza eta hedapenerako espazioetan, ondarean, kultura tradizional eta herrikoian eta bestelakoetan. Baina parte hartzeko guneen, komunikazioaren, argitalpenen eta abarren hizkuntza ere izan behar du.

ILDO ESTRATEGIKOA	JARDUN EREMUA	JARDUERAK	KRONOGRAMA	
			2023	2024
<b>HIZKUNTZA ESKUBIDEAK</b>  XEDEA: Arabako Lurralde Historikoko bizitza kulturalean euskararen erabilera normalizatua bermatzea eta sustatzea, kultura ekintzaren garapen osoan euskararen presentzia eta erabilera bultzatuta.	<b>Euskararen presentzia</b>	Plan honetan hartutako neurriak beti euskaraz egiten direla bermatzea.		
		Kultura eragileen artean euskararen erabilera sustatzea.		
		Era guztietako kultura programazioetan euskararen presentzia sustatzea eta bermatzea.		
		Ondarea zabaltzeko eta ezagutarazteko atarrietan euskarazko edukien kopurua handitzea		
		Liburutegiko bibliografia funtsak eguneratzea		
		Argitalpenak, irakurketa-gidak, buletinak, bibliografia selektiboak eta interesguneak egitea		
	Euskarazko jarduerak kopurua handitzea			
		Diru-laguntzen, hitzarmenen eta kontratuen prozeduretan hizkuntza-irizpideak aztertzea eta proposatzea		
Lurraldeko euskara-planetik lankidetzak eta koordinazioa sendotzea				

## 7. ILDO ESTRATEGIKOA. ESKUBIDE DIGITALAK

Kultura, bere proposamen artistiko, ondare eta kultura tradizional eta herrikoietan “artisanu” izaera sendoa mantentzen duen sektorea da: antzerki edo dantza lanak, arte bisualen edo ondarearen erakusketak, era guztietako tailer artistikoak edo irakurketa klubak, aurrez aurrekoa funtsezkoa den kasu batzuk aipatzearen. Baina teknologia eta digitalizazioa gero eta gehiago sartzen dira sormen prozesuetan, hedapenean, komunikazioan edo parte hartzean. Beraz, arrisku handia dago hizkuntza digital horiek menderatzen dituzten publikoen eta ez dituztenen artean arrakala digitala sortzeko eta handitzeko. Politika publiko baten funtzioa haustura hori saihestea, murriztea eta ezabatzea da.

ILDO ESTRATEGIKOA	JARDUN EREMUA	JARDUERAK	KRONOGRAMA	
			2023	2024
<b>ESKUBIDE DIGITALAK</b>  XEDEA: herritarrek eta sektoreak tresna eta eduki digitalak ondo jakitea eta erabiltzea sustatzea, pertsonen eta erakundeen arteko arrakala murrizten dela bermatuta.	<b>Azterketa</b>  <b>Zabalkundea</b>	Tresna teknologikoak aplikatzea emaitzen bilketa sistematikoan		
		Udalerrien komunikazio mekanismoak indartzea, tresna digitalak erabiliz		
		Zaharberitutako ondarea baliabide digital berrien bidez zabaltzea		
		Teknologia berrien eta digitalizazioaren erabilera erraztea zabalkunde eta kudeaketa prozesuetan		
		Informazio-kanal digitalak eguneratuta edukitzea		
		AFaren argazki eta dokumentu funtsaren gordailu digital kulturala sortzeko lan egitea		

## 8. ILDO ESTRATEGIKOA. LAN DUINA IZATEKO ESKUBIDEA

Kultura sektoreak, askotan, errekonozimendu gutxiko lan baldintzak izan ditu, prekarioak eta oso aldizkakoak. Eta hori bai alderdi artistikoan, bai alderdi teknikoan eta kudeatzailean Kultura politika batek bermatu behar du sektoreko pertsona guztiek baldintza duinetan lan egiteko eskubidea dutela. Hori proiektu baten bizi ziklo osoan gauzatzen da. Eta horretan, eragile guztiek konpromisoa hartzen dute beren zatia betetzeko.

ILDO ESTRATEGIKOA	JARDUN EREMUA	JARDUERAK	KRONOGRAMA	
			2023	2024
<b>LAN DUINA IZATEKO ESKUBIDEA</b>  XEDEA: lan-baldintza duinak sustatzea profesionalentzat eta erakundeentzat.		Indarrean dauden lan-legeak eta lan-hitzarmenak betetzen direla ziurtatzea		
		Sorkuntza-lana ezagutzera, denboretan eta kostuetan eraginez		
		Artistaren Estatutuaren garapenean eta ezarpenean aurrera egitea		



## 9. ILDO ESTRATEGIKOA. ANTOLAKETA ERAGINKORRA IZATEKO ESKUBIDEA

Sozietate gisa, administrazio publiko eraginkorra eskatzeko eta erabiltzeko eskubidea dago, eta horrek eragina du haren funtzionamenduan eta emaitzetan. Horrek baliabideak aurrezte eta inpaktuak biderkatzea dakar. Kultura sektoreak, bereziki, mekanismo arinagoak eta malguagoak behar ditu, eta mekanismo horiek ez datoz bat beste zerbitzu batzuekin, askoz ere estandarizatuagoak, egonkorragoak eta iraunkorragoak baitira.

ILDO ESTRATEGIKOA	JARDUN EREMUA	JARDUERAK	2023	2024
<b>ANTOLAKETA ERAGINKORRA IZATEKO ESKUBIDEA</b>  XEDEA: Kultura AFaren politika publikoen erdigunean jartzea	<b>Lankidetzatza</b>	Administrazio publikoen eta beste erakunde batzuen arteko zeharkako lana eta lan kooperatiboa hobetzea		
		AFako sailen arteko zeharkako lanean sakontzea		
		Lurralde-koordinaziorako mahai iraunkorra indartzea		
		Kultura Zuzendaritzako zerbitzuen arteko zeharkako eta lankidetzako lanean sakontzea		
		Proiektu kooperatiboetan parte hartzea kultura-erakundeekin		
		Foru Museoen, Artxiboa eta Kultur Etxearen espazioa uzten jarraitzea eta indartzea		
	<b>Plangintza</b>	Kulturaren Plan Estrategiko berria dibulgaziozko bertsio batean argitaratzea eta zabaltzea		
		Plangintza estrategikoaren eta operatiboaren prozeduretan eta tresnetan sakontzea		
		AFAn neurri jasangarrien plangintza eta ezarpena aplikatzea, eta udalerrietan sustatzea.		
		Kultura-eskaintzaren komunikazioan erabilitako edukiak, kanalak eta hizkuntzak berrikustea		
	<b>e-Administrazioa</b>	Herritarren beharrei erantzutea eta igurikapenak betetzea		
		AFAn e-Administrazioa eta dokumentazioaren kudeaketa integrala bultzatzea eta zabaltzea		
	<b>Prestakuntza</b>	Dokumentuak kudeatzeko sistema ezartzea Arabako Foru Administrazioan		
		Politika eta kultur proiektuen inguruko prestakuntza-programa irekiak sortzea		
		Kudeaketa gai teknikoei buruzko prestakuntza material instrumentalak argitaratzea		
		Arabako Kultura Ondarea zaindu eta zaharberritzearekin zerikusia duen guztian aholku ematea		
	AFaren Mezenasgoari buruzko Foru Arauaren informazioa eta komunikazioa hobetzea			

# JARDUERA BAKOITZA GARATZEKO FITXA-EREDUA

<b>JARDUERA</b>	1.1.1 HERRITARREN ESKUBIDE KULTURALEI BURUZKO FORU ARAUA
-----------------	--

<b>ILDO ESTRATEGIKOA</b>	1.I KULTURARA IRISTEKO ESKUBIDEA						
<b>JARDUN EREMUA</b>	Kulturara iristeko politikak						
<b>ARDURADUNA</b>	KULTURA ZUZENDARITZA						
<b>INPLIKATUTAKO ZERBITZUAK</b>	KEK	KET	MA	Z	AD	HAO	IT
<b>EGITURA LAGUNTZAILEAK</b>							

<b>XEDEA</b>	Herritarren Eskubide Kulturalei buruzko Foru Arau bat garatzeko elkarrekin lan egitea, zeinak...		
<b>ADIERAZLEA</b>	2023	2024	
AFAtik kanpoko eragileekin egindako bileren kopurua			
AFAko barne-eragileekin egindako bileren kopurua			
Zirriborroa egitea			

<b>EKINTZAK</b>	<b>AURREKONTUA</b>

KEK Kultura Ekintza  
 KET Kultura Etxea  
 MA Museo eta Arkeologia  
 Z Zaharberrikuntza  
 AD Artxiboa eta Dokumentu Kudeaketa  
 HAO Historia eta Arkitektura Ondarea  
 IT Kultura eta Kiroleko Idazkaritza Teknikoa